

Arruazuko Udalak herriaren etxean aurtan hainbat inbertsio egiteko asmoa du / 7

Sakanako Enpresen Elkartek eta ANELEk lankidetzaz hitzarmena sinatu dute / 5

Altsasu futbol taldea, 30 urteren ondoren, Preferente mailara igo da eta aldaketak datoz klubean / 16-17

Etxarri Aranazko Udalak argiteria publikoa eta hiru eraikin berritzeko lanak egingen ditu / 9

Joseba Ezkurdia Galarragak bere lehen Buruz Buruko finalaz disfrutatu nahi du / 13

Urdiaingo Haizkan musika taldeak 'Etsi' diskoa eta izen bereko bideoklipa kaleratu ditu / 21



Zahartze aktiborantz

Bertan proiektuaren bidez lau esparru landu eta emaitzak lortu dituzte / 2-3



Bertan projektuko kideak itxiera ekitaldia Lakuntzan egin zuten. Zuhaitz Areitio Rementería, ezkerretik lehena kuxkurtuta.

Zahartze aktiborako elkarlanean

Biztanleriaren zahartze progresiboaren erronkak eta zerbitzu publikoak eskuratzeko premiei erantzun nahian sortu zen Bertan proiektua, lau ardatz dituenak: garraio egokitua, komunitate bizilekuak, komunitate zaintza eta zaintzaileak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bertan proiektuaren akabera ekitaldia egin zuten Lakuntzako kultur etxean joan den ostiralean, nahiz eta maiatz akaberan des-pedituko den ofizialki. Han ekimenen parte hartu duten 25 pertsona izan ziren eta beste 24k taldeko bideo dei bidez parte hartu zuten. Bertan proiektua Iparraldeko CIAS Centre Inter-communal d'Action Sociale Pays Basque, Euskadiko Agintzari gizarte ekimeneko kooperatibak eta Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak (ibarreko hiru Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen izenean) ga-

ratu dute azken urte eta erdian. Proiektuaren helburua zen "mugaz gaindiko landa gunetako eskualdeen zahartze aktibo eta osasungarri baterako soluzio berritzaileen diseinu eta inplementazioa lantzea". Proiektuak 761.124 euroko aurrekontua zuen eta FEDER, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren dirulaguntza jaso zuen.

SGAko proiektuen arduradun Zuhaitz Areitio Rementería azaldu duenez, proiektua 2016an jaio zen. "Udalak, hainbat entitate eta garapen agentzia zenbait gai jorratzen hasi ginen, eta tartean zegoen zahartze aktiboa. Zenbait behar identifikatu ziren eta haiei irtenbidea emateko

hainbat aukera aztertzen hasi ziren". Bidean Europako proiektu baten bidez premia haiei erantzuna emateko aukera sortu zitzaizen ibarreko eragileei. "Zorionez, beste ekintza eta proiektu batzuetan harremanak ditugun entitateak dira. Elkar ezagutu eta komunean behar berak ginituela ikusi, kontsoztzioa osatu eta proiektua dirulaguntza deialdira aurkeztu genuen". 2020an dirulaguntza jaso zuten.

Pandemian garatu dute proiektua eta Areitio azaldu duenez, "ez da batere erraza izan. Zailtasun handiak izan ditugu pertsonen egoteko, horrelako proiektu bat beharrik dituzten pertsonen sortu behar baita, haien



Irurtzongo aparkalekua. ARTXIBOA

iritziak jasota. Haiekin egin nahi genuen kontrastea hasieran telefonoz egin genuen". Olatu arteko tartetan aurrez aurreko prestakuntza saioak, aurkezpenak eta abar egin dituzte. "Nahi bezainbat jenderengana ez gara iritsi, guk nahi genituzkeen emaitzak ez ditugu lortu, baina pauso handiak eman ditugu".

Jarraipena

Argitu duenez, "lau bazkideak elkarrekin egindakoarekin oso gusturagaude. Emaitza positiboak gainontzeko bazkideen eskualdeetara eraman nahi ditugu orain". Gipuzkoan komunitate zaintzaren ardatza garatu dute, Iparraldean zaintzaileena eta Sakananeskaera bidezko garraioa eta komunitate bizilekuak.

Proiektua bukatu bada ere, sustatzaileak elkarrekin lanean segituko dute. "Lortutakoarekin konforme gaude, baina urrutia go iritsi nahiko genuke", azaldu du Areitio eta Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateetan "egindako lanarekin oso gustura" daudela nabarmendu du. "Argi ikusten dute bide horretatik jarraitu behar dela herritarrei zerbitzuak emateko".

SGAkoak esan duenez, "argi dago ditugun premia guztiei ez diegula erantzuna eman. Aurrea jarraitu beharra dago, bai edo bai". Horregatik, bigarren fase bat izateko finantzazioa bila ja-

rraituko dute. "Europatik lortuko bagenu, askoz hobe. Bestela, Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateek erabaki dute pertsona bat jartzea Olatzeako zerbitzua kudeatzeko eta Sakanan zahartze aktiboaren inguruan dauden zerbitzuak emateko". Hiru mankomunitateen apustua nabarmendu du Areitio: "komunean zerbitzuak ematea ibar guztian. Olatzea lehenbailehen martxan jarri. Kolaborazio etxea bizitzeko beste eredu bat da. Zahartze osasungarriagoa eta osoago bat ematen duelako. Halakoekin, segur aski, erresidentziak beranduago iritsiko dira". Bitartean, jasotako informazioa elkarbanatuko dute.

Eskaera bidezko garraioa

Eskualde barruko eta eskualde arteko garraio egokitua, landa eremuetako adinekoen erabateko gizarte parte hartzea eta zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko beharra ikusi zuten proiektuko kideek. "Herri txiki askotan adinekoek, eta denek, mugikortasunerako premia handiak dituzte". Sakanako mugikortasunaren eta baliabideen diagnosia egin zuten lehenik. Ondoren Europako hainbat landa eremutan dagoeneko martxan dauden zerbitzuak eta baliabideak aztertu zituzten. "Erabaki genuen eskaera bidezko zerbitzu bat martxan jartzea. Udal eta hainbat entita-



EGOKI
Ventanas PVC Leihak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



terekin harremanetan jarri eta zerbitzua emateko dena prest geneukanean Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen haiek jarriko zutela zerbitzua martxan". Foru administrazioa zerbitzua eskaintzeko lizitazioak egin ditu eta oraindik datarik ez dutela azaldu du Areitiok. "Mugikortasunari buruz hitz egiteko jardunaldi irekiak izanen dira Irurtzunen garagartzaroaren 20an, herritar guztiek parte hartzeko aukera izanen dute. Hor informazio gehiago jasoko dugu, baina pentsatzen du udazkenerako zerbitzua martxan izanen dela".

Hori jakin eta proiektuaren erdian planak aldatu behar izan zituzten. Areitiok azaldu duenez, "Europako hainbat landa eremutan eskari bidezko garraio zerbitzua martxan dago. Zerbitzu hori emateko bi gauza behar dira: zerbitzua bera eta hura digitalki kudeatuko duen erreminta bat, webgune bat eta aplikazio bat. Ikusi genuen eskualde bakoitzean tresna digital hori desberdina zela eta erakunde publikoak, tokian tokiko konponbidea bilatzen ari zirela, horrek dakarren diru gastuarekin". Horregatik, edozein entitatek erabiltzeko moduko erreminta digital librea sortzeari ekin zioten, baita egin ere.

Areitiok esan duenez, "webgune bat sortu dugu. Entitate guztiek tresna hori jaisteko eta haien zerbitzura egokitzeko aukera izanen dute. Hau da, lineak eta beharrezko jotzen duten informazioa gehitzeko aukera izanen dute. Edozein hizkuntzatara itzultzeko aukera izanen dute. Halako zerbitzua kudeatzeko aukera izanen dute horrela". Entitateek egokitzen horiek egiteko jarraibideak dituzten dokumentuak prestatu dituzte. "Sortu dugun tresna guretao erabilgarria izateaz aparte Europa guztian ere izanen da" azaldu du SGako kideak. "Bestalde, erreminta horren bidez mahai gainean jarri nahi genuen publikoak eta digitalak diren gauzak beste era batera kudea litezkeela. Ez dago zertan gorpila asmatzen ibili eskualde bakoitzean. Eraldaketa digitala beste modu batera egin liteke. Behin egin, eta libre utziz, ez dugu asmatzen ibili beharrik. Horrela dirua aurrezten da. Gainera, informazioa eta beste partekatzen dugu".

Eskari bidezko garraio zerbitzurako tresna horren sortze



Olatzea hotela zena komunitate bizileku izanen da. ARTXIBOA

prozesuaren azken fasean daude, "azken ukituekin". Dagoneko azkeneko probak egiten ari dira eta garilerako dena prest egonen da. Orduan Europako beste edozein entitatek deskargatzeko eta martxan jartzeko aukera izanen du.

Komunitate bizilekuak

Jendea elkarrekin bizitzea eta bizitoki horiek landa eremuan nolakoak izan daitezkeen adinekoen bizi kalitatea hobetzeko helburuz, Sakanan zeuden beharrrak identifikatzeko diagnosia egin zuten. "Batetik, ikusi zen ibarrean adinekoendako erresidentzia plazak falta direla. eta, bestetik, Nafarroan gehien eza gutzen den eredia erresidentzia da". Ikusi zuten Europako landa eremuetan adinekoen erresidentziez aparte bestelako ereduak badaudela. "Europar zerzegoen eta zerk funtzionatzen zuen aztertu genuen eta bat interesgarria iruditu zitzaigun: kolaborazio etxebizitzak dira. Horien barruan hainbat eredu eta aukera daude. Ikasi dugu proiektu bakoitza desberdina dela besteekiko", azaldu du Areitiok. Gaineratu duenez, "proiektua desberdina egiten du bertan bizi den pertsonak. Beraiek erabaki behar dute nola bizi behar duten modu aktibo batean halako espazio batean".

"EZIN IZAN DUGU NAHI BESTE JENDEREKIN EGON, BAINA PAUSO HANDIAK EMAN DITUGU"

Proiektuko kideek forum batean aurkeztu zituzten inguruan dauden hainbat aukera eta Arbizuko Olatzean zerbitzu hori eskaintzeko martxan jarri dira. Halako proiektua abiatzeko Nafarroako Gobernuaren legediak eskatzen duena betetzeko eraikina egokitu dute, "premia guztiak asetzeko. Espazio hori bizitzeko prest dago". Proiektua garatu bitartean komunikazio lana egin dute eta ahalegindu dira sakandarrei aurkezten espazio horretan zer egin nahi den, nahiz eta pandemiak ez dien batere lagundu horretan. Baina aukera izan zutenean, batetik, bideo bat grabatu zuten Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Etxekonak eta Etxekide kooperatibetako bazkideek eta ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen ordezkariak parte hartu zuten. "Bideo horrek lagundu digu sakandarrei azaltzen zer egin nahi zen. Jendeak interesa azaldu du, baina oraindik ez da nahikoa proiektua ekonomikoki bideragarri egiteko". Dagoneko sei pertsonak Olatzean bizitzeko interesa dute. Eraikinean 15 pertsonarendako tokia dago. 11 logela daude. SGakoak argitu duenez, "ez dago inolako obligaziorik beste pertsona batekin bizitzeko, baina nahi duten pertsonendako logela batzuk bikoitzak izan daitezke. Esaterako, bikote bat edo anai-arreba batzuk elkarrekin bizi nahiko balute, horretarako aukera ere izanen lukete".

Areitiok azaldu duenez, "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateek erabaki dute proiektuarekin aurrera segitzea. Aurretik jendearekin harremanetan jartzen ahaleginduko gara,



Bakaikuarrak Santio plazan. ARTXIBOA

jende gehiago proiektu horretara gerturatzeko, ezagutzeko eta, lehenbailehen, martxan jartzeko. Bitartean interesa duenak bere eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin harremanetan jarri behar du".

Zaintza eta zaintzaileak

Bertan proiektuaren barruan zaintzarekin lotutako bi ardatz landu dituzte. Batetik, komunitate zaintza dago. Areitiok azaldu duenez, "herri txikietan guztiok elkar ezagutzen dugu, denok dugu elkarren berri. Adineko jende asko bakarrik bizi da. Esaterako, adineko bat egunero ohitura batzuk dituen: okindegira joan, norabait joan... Baina egun batean ez du bere eguneroko ogia hartu, edo desagertu egin da". Halako kasuetan aktibatuko litzateke komunitate zaintza, "garai batean egiten zena da, baina orain erreminta digitalekin lagunduta egiten dena da", argitu du Areitiok.

Komunitate zaintza nola egiten den zehaztu du: "Lehenengo, halako arriskua izan dezaketen pertsonak identifikatzen dira. Eta prest dauden gainontzeko herritarrei prestakuntza ematen zaie eta azaltzen zaie zer den komunitate zaintza. Prestakuntzaz aparte, telefono mugikorrean aplikazio bat jartzen zaie, Landalab. Eta herritar horiek ikusi-ko balute arriskuan dagoen per-

"OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN APUSTUA DA KOMUNEAN ZERBITZUAK EMATEA IBAR GUZTIAN"

tsona horietako bakarren bat bizitzan aldaketaren bat egin duela, edo jarrera aldaketaren bat, edo normalean egiten dituen gauza horiek ez baditu egin... Aplikazio horren bitartez Gizarte Zerbitzuak aktibatuko litzuzke. Gizarte Zerbitzuetako langileak arduratuko lirateke zer gertatu den aztertzeaz, esaterako, zergatik ez den ogia erostera joan. Komunitate zaintza horren bitartez zergatia ikusi eta erantzuna emanen litzaioke". Ardatz hori Iparraldeko eta Gipuzkoako proiektuko bazkideek garatu dute. Biek jarri dute proiektua eta emaitza "oso onak" lortu dituzte. Areitiok azaldu duenez, "nahiko genuke jorratu duten lan hori gurera ekartzea".

Zaintzaileak

Pandemiak agerian utzi du zaintzaren garrantzia. "Zaintzaileak eta osasun arloan lanean ari diren pertsona, nolabait, beste leku batean jarri ditu pandemiak. Haien lanaren garrantzia agerian utzi du". Areitiok azaldu duenez, Iparraldekoek identifikatuta zuten lan bezala zaintzaileena ez zegoela inolaz ere baloratuta. "Zaintzaileen lanari balioa aitortzea ere proiektuaren zati bat zen eta Iparraldeko kideek horren inguruko lan handia egin dute". Horretarako, bideo bat grabatu zuten. Han zaintza lanetan ari direnen lekukotzak eta iritziak jaso dituzte. "Zaintzaren arloan dauden guztiei eskerrak eman nahi genizkieke. Gizarteak hausnartu egin behar du, eta pertsona horiek egiten duten lana behar den bezala baloratu; soldata eta lan baldintza duinekin".



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Herriko jaiak

Pandemiagatik ohiko herriko jaien bi urteko geldialdiaren ondoren, gauzak nola joanen diren ikusteko dago, tartean festak ez ezik zeinbait bizimodu eta ohitura ere eten direlako. Auskalo, nola itzuliko garen aurreko erritoetara eta ohituretara. Honezkero, pandemiaren aurretik hasiak ziren aldaketek jarraituko dute, azkartu egingen dira edota berriak sortuko dira. Ikusiko dugu. Besteak beste, gizartearen aldaketaren joera orokorreki buruz hitz egiten dutenek herriko/hiriko jaiak egunekoak gauekoak baino gehiago bihurtzen ari direla diote. Horretan, adinak ere izanen du zerikustekoa, iruditzen zait, gazteendako, gaua zein eguna, biak ala biak, izanen batira festa garai.

Zenbait herritan hasiak ginen festen egun kopuruari buruz hitz egiten, aurki, aurtien festik gabeko bi urteren ondoren, inori ez zaio horrelakorik aitatzea ezta okurrituko ere. Era berean, hasiak ginen esaten ere aste gorriko festetako egunetan oso jende gutxi ibiltzen zela, festen egitarauan zer jarri edo zer ez, eta hau, hura eta beste. Geroz, aurtengoetan

AUSKALO, NOLA ITZULIKO GAREN AURREKO ERRITOETARA ETA OHITURETARA

aprobetxatu, badaezpada ere.

Garbi dago asko desiotan gaudela norbere herriko jaiak ospatzeko, jendearekin elkartzeko, jendea ikusteko eta krisi honek utzi dituen arrastoak ikusteko. Neurria eta tenperatura hartzeko garrantzitsuak izan daitezke aurtengoak, eta lehendik datozkigun ajeak konpontzen hasteko modukoak. Galdera da ea gai izanen garen inertzia batzuei aurre egiteko edo datozen urteei begira moldaketak egiteko, beti ere, jakina, onerako baldin badira.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Alternatiba proiektua bukatzeaz

SAKANA

Jakinen duzuenez, Nafarroa, Araba eta Burgosko trenaren aldeko hainbat taldek bultzaturik, gaur egungo tren hobetzeko, doitzeko eta mota guzietako trenak bertatik pasa daitezen ahalbidetzeko proiektua prestatzen ari gara ingeniari enpresa batekin.

Bada, dagoeneko proiektu honen lehen mapak eginda daude eta orain, hauen aurkezpena burutzen ari gara.

Proiektuaren helburua trenbidearen ibilbidea ahalik eta gutxien aldatzea da, ikuspuntu ekonomiko batetik eta ingurumenari dagokionez, hau baita merkeena eta kalte gutxien sortzen dituen.

Sakanan ibilbidea ez da ia ukitzen baina badira hiru

tarte non aldagetak egitea ezinbestekoa ikusi dugun: Altsasun, Uharte Arakilen eta Izurdiaga-Errotzen. Hori dela eta, herri hauetan aurkezpenak prestatu ditugu bertako herritarrekin hitz egin eta hobekuntza proposamenak jaso ahal izateko. Dagoeneko, hitzaldiak burutu ditugu Uharte Arakilen eta Errotz-Izurdiagan. Hemendik gutxira Altsasun egitea aurreikusten dugu.

Errotzen eta Izurdiagan trenbidea herriak ez zeharkatzea eta ahalik eta gehien aldentzea eskatu dute. Ez da lan erraza izanen autobidea eta ibaia aldeetan baitituzte baina balizko ibilbidea adostu dugu herritarrekin. Uharte

Arakilen trenbideak eta autobideak harresi izugarri bat sortu dute Beriain aldeko auzoaren eta herriaren artean. Trenbidearen garaiera jaitea adostu dugu herritarrekin. Altsasuri dagokionez, ingeniari taldeak herriko geratokiaren erabilera indartzeko eta irisgarritasuna handitzeko geratokia bideberri mailara jaitea proposatzen du eta zubia desagertzea. Aurkezpen hitzaldia egiterakoan proposamen gehiago izatea espero dugu.

Gogoratu proiektu hau ordaintzeko diru bilketa abian daukagula Kukumiku webgunean "Trenaren aldeko alternatiba" izenarekin. Lagundu!

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Treceit Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gizarte ekonomia bulkatzeko hitzarmena

Nafarroako gizarte ekonomiako enpresak elkartzen dituen ANEL elkarteak eta Sakanako Enpresen Elkarteak hitzarmena sinatu dute. Haren helburu nagusia ibarrean gizarte ekonomia sustatzea da

LAKUNTZA

Ignacio Ugaldek (ANEL) eta Sakanako Enpresen Elkarteko (SEE) Jose Julian Garziandiak sinatutako lankidetzako hitzarmenak bi elkarleen arteko sinergiak sustatzeko hainbat ekintza jaso ditu. Sinatzaileen arabera horrek "bi erakundeetako enpresen arteko lankidetzak aukerak biderkatze eta enpresa kudeaketan eta lidergoan eskumenak hobetzeko balioko du". Aurreratu dutenez, enpresa lankidetzarako beharrezkoa den hurbilketa errazteko proiektu espezifikoetan lan egingen dute, esate baterako, jardunaldiak eta tailerrak, edota garapen profesional eta pertsonaleko guneak. Gainera, ANEL eta SEE elkarlanean ariko dira gizarte ekonomiaren ereduari jarraiki, industria sektorean eta inguruko enpresentzako zerbituen sektorean ekintzailatza sustatzeko eta sentsibilizatzeko. Jarduera horiek eskualdeko errealitateari erantzun behar diotenez, SEEk ibarreko ekonomia egoera, baliabideak, tokiko premiak eta enpresa sarea hobeto ezagutzeko duen informazioa eman du.

Hitzarmenaren alderdi garrantzitsuenetako bat da SEEk kide diren eta finantza zailtasunak dituzten edo belaunaldien arteko



Jose Julian Garzandia (SEE) eta Ignacio Ugalde (ANEL).

txandarik ez duten enpresak identifikatzea, horiek gizarte ekonomiaren ereduaren pean eraldatzeko. Ugaldek adierazi zuenez, "zailtasunak dituen enpresa bat kooperatiba bihurtzeak haren jarraipena ahalbidetu dezake eta enpleguari eutsi. Azken batean, eskualdearen etorkizunaren aldeko apustua da". Akordio horren bitartez, ANELek eta SEEk lan egingen dute ANELen ezagutza eta esperientzia eskaintzeko langileak bazkide langile bihurtzen diren eraldaketa proiektuetan.

Nafarroako gizarte ekonomia-ko enpresen elkarteko ordezkariak adierazi zuenez, "gizarte ekonomia ahalbidetu du Sakanako krisien ondorioak arintzea, enpleguari eustea eta bere enpresen sustraitzea sendotzea. Gaur egun gurekin dauden industria enpresa horietako asko indartu eta mantendu ahal izan dira pertsonak erdigunean jarritz". Besteak beste, Altsasuko eta Sakanako elkarte kooperatiboak eta Industrias Laneko, Eseki eta Lacunza lan sozietateak aipatu zituen.

Lacunza Kalor Group-ek handitzea aurreikusten du

Ekoizten dituen berogailuen eta tximinien %42 esportatzen du gaur egun. Egundak Europar liderra da

LAKUNTZA

Mikel Irujo Amezaga Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontseilariak eta Izaskun Goñi Razkin Enpresa Politikako zuzendari nagusiak Lacunza Kalor Groupen Lakuntzako lantegia bisitatu zuten asteazkenean. Jose Julian Garziandiak azaldu zenez, lantegia duela 49 urte sortu zuten burdin galdategi gisa. Sukaldeak, ekonomiak, egiten hasi ziren. 1997an aldaketa izan zen enpresan, bi bazkideetako batek hura utzi eta gelditu zena, Jose Julian Garziandiak jabetzaren erdia langileei eskaini zien. Orduetik enpresa lan sozietate anonimo da. Irailean 25 urte beteko ditu ANELgo kide dela. Garziandiak jabetzaren %49 du eta gainontzekoa langileen esku dago. "Eredu hori oso positiboa da guztiondako. Enpresarendako eta langileendako. Guztiok elkarri esutzen diogu". Gaur egun enpresa berogailuak eta tximiniak fabrikatzen erreferente bihurtu da. Gasolia, pellet eta egurra erregai gisa duten galdarak ekoizti izan dituzte. Gasa erretzekoak egitekotan izan ziren.

Duela 12-14 urte estrategia hausnarketa egin zuen enpresak eta egurra erretzeko berogailuetan espezializatzea erabaki zuten. "Egurraren arloan Europako onenak izan nahi genuen. Produktu, diseinu eta berrikuntzan oinarritutako apustua izan zen". Gaur egun kontinentean sektoreko liderrak dira. "Apustua zaila, konplexua izan zen. Ikusi-

takoa ikusita orain esatea erraza da, baina orduan ez zen hala korik ikusten. Asmatu genuen", esan du Garziandiak. Ekonomikoen ekoizpena gaur egun enpresaren fakturazioaren %15-20 da. Gainontzekoa berogailuak dira. "Lanak ongi egin ditugu eta asko hazten ari gara. Gainera, energiaren prezioak, COVID-19a, gerra eta hori guztia are gehiago laguntzen ari da". Egurrezko berokuntza sistemen alde egiten ari da jendea eta epe ertainerako aurreikuspenak onak direla gaineratu du.

Garziandiak esan zuenez, ekoizpenaren %58 estatuan saltzen dute. Gehiena Andaluzia, Extremadura eta Gaztela aldean. Enpresako buruak horren zergatia eman du: "hemen etxe guztietan berogailua dago, han ez. Hotz egiten duten 20 egunetarako gure produktua erosten dute. Espainiako salmentak izugarri handitu dira". Gainontzeko %42 Europa, Australia eta Amerikako 40 bat herrialdetan. Garziandiak salmenten hazkundera kanpoan izan dela aurreikusten du, ez duelako uste Espainian gehiago haziko denik salmentan. Europar begiz jota dituzten merkatuetako batzuk dira: Suedia, Finlandia, Norvegia eta Estonia. Kanadan eta Amerikako Estatu Batuetan hasi dira saltzen. Horregatik, heldu den astean zortzi langile berri sartuko dira lanean, eta 120 izanen dira. Urtea 140rekin despiditzea aurreikusten du.

CA OSASUNA
VS
RCD MALLORCA

MAIATZAK 22, IGANDEA
20:00-22:00

(IRRATIKO KONEKTIOA 19:45EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ

euskalerriairratia

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



Peio Bergara Garcia atzo arte denda izan zen lokalean.

Memoriarako beste denda bat

Altsasuko bigarren familia negozio zaharrenak, Bergara altzari dendak, atzo itxi zituen ateak 83 urteko ibilbidearen ondoren. Nicolas Bergarak zurgindegi-ebanisteria zabaldu zuen 1939an. Nicolasi Peio semeak hartu zion lekukoa altzari dendan

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Zelai kaleko 80. zenbakiko beheko partean itxiera ekitaldi bat egiteko asmoa zuen Peio Bergara Garciak atzo. 83 urteko ibilbidearen ondoren aitak han bertan zabalduzako zurgindegi-ebanisteriak, gerora altzari denda bilakatu zena, betiko itxi zituen ateak atzo. "Hemendik aurrera bidaiatzea eta kirola niretako lehentasuna izanen dira. Avilesko duatloian Europako txapelketarako sailkatu nintzen duela hiru aste. Bilbon irailean Europako txapelketa jokatu da eta Espainia ordezkatuko dut. Eta entrenatzen segituko dut eta ea lortzen duan Ibizako heldu den urteko mundialerako sailkatzea", azaldu du atzo arte altzari saltzailea zena eta kirolzale porrokatua denak. Osasuna, gozatzea eta bidaiatzea, horiek ditu buruan. Lokalari

eursiko dio familiak. Atzeko partean baratza ere badu eta han ere aritu nahi du Bergarak. "Gainera, orain udalak aukera eman du merkataritza lokalak izandakoak etxebizitza bihurtzeko. Aukera bat da. Lurraren mailan dago, atzean baratza".

Dendari buruz esan duenez, "negozio politak dira jende askorekin zaudelako, jende asko ezagutzen duzulako. Jendearekin harreman zuzen estuko negozio eredua ezagutu dugu guk". Joan den mendeko 60., 70. eta 80. hamarkadetan Altsasura etorritakoak ditu gogoan Bergarak.

**"JENDEAREKIN
HARREMAN ZUZEN
ESTUKO NEGOTIO
EREDUA EZAGUTU
DUGU GUK"**

"Bertako jendeari saltzen zenion eta eskura ordaintzen zuten. Orduan, 60. eta 70. hamarkadetan, modan jarri zen epeka eros-tearena. 'Ahal duzunean ordaindunko didazu'. Horretarako konfiantza zegoen. Bezeroarekin tratua oso atsegina zen saltzaile eta eroslearen artean lotura zegoen. Orain hotzagoa da, harreman hura faltan sumatzen da. Lehen baino individualismo handiagoa dago orain". Bergarak nabarmendu duenez, jende askok aita Señor Nicolas gisa gogoratzen du, "ez handia zelako. Bai-zik eta askori lagundu zielako. Esker onagatik. Dirurik gabe etortzen zen jendea zen, eta aitak esaten zien: ahal duzunean pagatuko didazu".

Aitaz

Nicolas Bergara, "lehengo eran" 15 urterekin zurgin-mutil hasi

zen eta ofizioa ikasi ondoren, 1939an zurgindegi-ebanisteria zabaldu zuen etxe azpiko lokalean. Zura landu eta altzariak egiten aritu zen Nicolas: haritzezko bankuak, etxe sarrerako gaztainondoak altzariak... "Etxe osoak hartzen zituztenez, etxearen egitura zena egiten zuen, zutabeak eta habeak, eta ondoren etxea altzariz jantzi", azaldu du Bergarak. "Guztia eskuz egiten zuten, ez orain bezala", gaineratu du. Nicolasek ere zurgin eta ebanista ofizioa erakatsi zien beste zurgin-mutil batzuei. Ordurako hormigoi armatuan oinarritutako eraikuntza zabaldua zen eta eraikuntza lana jaitsi zitzaion zurginei. Ofizio horrekin 33 urte eman zituen, 1972ra arte; zurgin lanak egiteari utzi eta altzariak saltzeko denda jartzea erabaki zuen. Zurgindegia zena altzari denda gisa berritu zuen.

Urte hartan bertan, 16 urterekin, Bergarak Altsasuko institutuan egindako ikasketak des-peditu zituen. "Ikasten segitu nezakeen, edo aitarekin altzari dendan lanean hasi. Hori zen planteamendua eta aitarekin gelditu nintzen". Aita-semeak elkarrekin 17 urtez lan egin zuten, 1989ra arte, Nicolas jubilatzen arte. Aitak bezala, Bergarak ere 50 urte eman ditu lokal berean lanean.

Lokala altzarien inguruan izan diren aldaketan lekukoa izan da: lehenik altzariak eraikitzen ikusi zuen, gero altzariak saltzen ziren eta, azken joera, norberak altzariak muntatzea da. Bergararenean hainbat altzari zituzten, baina baita altzari katalogoak ere, haiek ikuskatu eta eskatu ahal izateko. Haiek altzari klasikoak landu dute batez ere. Horiek "adin bat zutenek" erosten zituzten, "haritza edo intxaurrez egindako altzariak garestiak dira". Hala ere, dendaren eskaintzan altzari xumeagoak ere bazituzten. "Azken partean gaztaina eta haritza lantzen zuten altzari enpresak desagertzen joan dira. Orain Ikea estiloko altzariak dira nagusi, xumeagoa, merkeagoa. Askok ere erabilgarriagoak dira: lau kontu eta sofa.

**BERGARAK BERE BIZI
GUZTIAN ZELAI
KALEAN 98
ESTABLEZIMENDU
EZAGUTU DITU**

Lehen etxe guztietan haritzezko liburutegi klasikoak zegoen. Logelan gaur egun hankadun somierrak, koltxoia eta kitto. Lehen, ordeak, ohea, gau-mahaiak, komoda, ispilua... Aldatu egin da". Dendari ohiak azaldu duenez, "herriko merkataritzak garai hartan askoz gehiago saltzen zuen". Bergararen iritziz, "gaur egungo gazteen eros ahalmena ez baita garai batekoen bera. Lehen diru gehiago erabiltzen zen eta etxe guztietan altzari onak ezagutu ditugu, gaztainaz, haritzez eginak. Orain, ordeak, guztiak kontratxapatuak dira".

"Europa etorbidea"

Bergararen arabera hala omen zen garai baten Zelai kalea, bertatik, N-1 errepidea pasatzen baitzen. "Jendea asko pasatzen zen. Kaleko janari dendek gehien saltzen zuten egunak asteburuan zen. Urbasara joaten ziren Gipuzkoako bezero ugari izan ditugu. Gelditu eta begiratu egiten zuten. Garai batean Idiazabal, Segura, Zegamara asko saldu zen". 1982ko azaroaren akaberan saihezbidea mustu zen, eta Altsasu erditik egunero 10.000 bat ibilgailuk pasatzeari utzi zioten. "Nabaritu zen hainbeste jende ez zela pasatzen eta merkataritzak pixka bat sufritu zuen". Baina halako trafikorik ez egotean segurtasunean irabazi zuten. Izan ere, ibilgailuek oinezkoak harrapatu eta altsasuarrak ere hil zituztela gogoratu du.

Zelai kalearen garai bateko merkataritza muskulua adierazgarri, Bergarak bere 66 urtetan kalean ezagutu dituen establezimenduen zerrenda osatu du. 98 dira. Zerrenda aletzen hasi eta auzoko nagusienei aitortza egin nahi izan die: Jose Bergara (1925), Vicente Tobar (1929) eta Lola Hernando (1930). Lagun minei ere: Kontxi "la ferretera", Maria Gasi Lezea "la modista", Pedro eta Santi Zelaia, Aurita, Juan Cruz Bengoetxea eta Conchi, Tere Larrea, Kontxi "la francesa" eta Jose Luis Fernandez de Garaialde y Lazkano "el herrero", Bergarak ere beste leku batzuetatik etorritako familiei, Extremadura-koak gehien bat, "estimatu handitan" ditu: Vitori Cid, Brigida Fernandez, Josefa Morcillo, Luisa Notario, Victoria Juanez eta abar. Bergarak familiari "mugagabeko eskertza" adierazi dio, bereziki aitari.



Txirrindulariak Irurtzun Plazaolako bide berdea hartzen. UTZITAKOA

Plazaolako bide berdearen eguna Itsasperrin

Igandean ospatuko da. Zamartzetik eta Irurtzundik Itsasperrira martxak abiatuko dira 11:00etan

ARAKIL / IRURTZUN

Arakilgo eta Irurtzongo udalak kide dituen Plazaola turismo partzuergoak 22. Plazaolako Bide Berdearen Eguna antolatu du. Estreinakoz bide berdea ez da eguneko protagonista izanen, Egiarretako Itsasperi ermita erromanikoa baizik. Aldaketa horretarako hiru arrazoi eman dituzte partzuergoko arduradunek. Alde batetik, Itsasperiaren enblematikotasuna eta balio historiko eta monumentalak azpimarratu ditu. Bestetik, Itsasperi Sakanako etorkizuneko bizikleta bidearen eta Donejakue bidearen erreferentzia gune bihurtu nahi dela, Plazaolako Bide Berdearekin eta, hedaduraz, Eurovelo 1 Europako bizikleta bidearekin lotura indartuz. Eta, azkenik, abenduko euriteek bide berdea oso egoera txarrean utzi dutela, Imotz, Arakil eta Irurtzongo zatiak kaltetuenak hain zuzen. Partzuergotik azaldu dutenez, Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritza Nagusiak dagoeneko aurreratuta du kalte horiek konpontzeko proiektu bat, lanak berehala hasiko dira.

Ibilbide gidatuak, eta beste

Bide berdeek oinezkoak eta txirrindulariak hartzen dituzte. Plazaolako bide berdearen egunean ere bizikletaz eta oinez egiteko ibilbide gidatuak izanen dira 11:00etan. Ibilbideetako bat Uharte Arakilgo Zamartzeko ermitatik abiatuko da (12 km). Bizikletak martxan jarri aurretik, 10:00etan, eraikin erromani-

koa ezagutzeko bisita gidatua izanen da nahi duenarendako. Bestea Irurtzongo autokarabana gunetik abiatuko da Itsasperi-rantz. Kasu horretan 5 km-ak oinez edo bizikletaz egiteko aukera izanen da. Bi abiapuntuetatik ateratzen diren tropelek laguntzaileak eta zaintza ibilgailua izanen dituzte. Ibilbide horietan parte hartzeko ez da izenik eman behar, baina garaiz iristea eskatu du antolakuntzak.

Bitartean, Itsasperrin Plazaolako eremuko produktuen azoka hartuko du 11:00etatik aurrera. Bisitariak taloa, sagardoa, gazta, eztiak, pitxiak, haziak eta beste eskuratzeko aukera izanen du. Ermitak eguerdian bi jarduera hartuko ditu. 12:00etan bisita gidatu baten bidez eraikina ezagutzeko aukera izanen da. Materialen birziklapena sustatu eta horrela hondakinen sorrera murrizteko, familiendako animazio tailerra izanen da 13:00etan. Ermitan, 13:30ean, berriz, Sakanako bizikleta bidea proiektuaren aurkezpena. Sakanako Garapen Agentziak aukera hori baliatuko du, esaterako, ibilbidearen planak erakusteko.

Itsasperi ingurua jardueraz beteta egonenez, antolatzaileek autoz joan behar dutenei aholkatu diete Etxarrengo gasolindegian edo Etxarrearen aparkatzeko. Aranburu frontotik Itsasperrira joan etorrian txutxu tren bat ibiliko da 11:00etatik 14:30era. Bestetik, partzuergotik zaborrik ez sortzeko deia egin dute.

Herriaren etxean hainbat inbertsio egingen dira

Arruazuko Udalak ludoteka handitzeko asmoa du eta egungo haren espazioa nerabeendako txoko izatea nahi du. Gainera, igogailua jarriko da. Bestalde, ganboikoan mantentze ariketak egiteko materiala erosiko du udalak

ARRUAZU

Aurreko urtean baino 40.000 euro gehiago ditu aurtengo Arruazuko Udalaren aurrekontuak: 179.000 euro. Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, aldea baso aprobetxamendua saldu delako da. Ubelde pareko txipudegia eta Arnaz aldean haritzek eta pinuz osatutako epaitzengatik 48.000 euro eskuratu ditu udalak, eskatzen zuenaren bikoitza. Ovejerok azaldu duenez, "ohiko aurrekontua da". Hala ere, herriko plan estrategikoan jasotakoa betetzeko asmoz hainbat inbertsio jaso dituzte. Haie-tako asko herriaren etxean egingen dira. Hasteko udaletxea zaharberritzeko lanak egin zirenean igogailua jartzeko zuloa utzi zen. Hura jartzeko udalak 15.000 euro ditu orain. Horrela 2. eta 3. solairuan egiten diren jardueretan parte hartzeko aukera izanen dute adinekoek.

Izan ere, ganboikoak kultur ekitaldiak edota batzarrak hartzeaz aparte, aurki gimnasioa hartuko du. Ovejerok azaldu duenez, "mantentze ariketak egiteko pisuak, baloiak, koltxonetak eta halakoak" erosiko dituzte. Eraikinaren egitura egurrezkoa denez, ez dute makina askorekin bete nahi ganboikoa. Materiala erosteko 3.000 euro bideratu ditu udalak. Sakanako Mankomunitateko Sakana eskualde aktiboa zerbitzuko talde bat Arruazun dago eta hotza egin duenetan ganboikoan elkartu izan dira.

Bestalde, herriaren etxean espazioen banaketa egingen dute. Lehen solairuan dagoen batzar gela ludoteka bihurtuko da eta egungo ludoteka, berriz, nerabeendako tokia izanen da, "ikas-teko, egoteko. Altxariak erosiko ditugu eta ordenagailua eta Internetarako lotura izanen dute". Horretarako 3.000 euro dira, eta liburutegia martxan jartzeko 2.000 euro. Bestalde, 42.000 euro



Arruazuko kontsutategia, muralarekin, eta herriaren etxea. ARTXIBOA

HERRIRA INTERNET SAREA ERAMATEKO UDALAK 15.000 EURO BIDERATU DITU GUZTIRA

(19.000 euroko dirulaguntza) inbertitu zituen udalak herriaren etxean egur galdara eta lehen solairuan eta ganboikoan berogailua jartzeko. Joan den urtera arte ludotekan besterik ez baitzegoen berogailua, elektrikoa. Bestalde, gazteek gazteleku bat nahi lukete. Alkateak esan duenez, "hainbat galdera egin diezkiegu hausnartu dezaten. Oraindik ez dugu erantzunik jaso, baina beraidako toki bat atontzeko 1.750 euro ditugu".

Estalpea

Proiektua egiteko 17.000 euro daude. Udalak estalpearekin batera ingurua urbanizatzea. Lana finantzatzeko Toki Azpiegitura Planari erreparatu diote. Urtero udalek beraiek nahi dutenera bideratzeko diru partida bat izanen dute eta horiek urte batetik bestera gordetzeko aukera izanen

dute. Baina dirulaguntzak eskatzea ez dute baztertu. Herriko itxurari eragin diezaiokeen bestea udalak egin nahi duen Alde Zaharra birgaitze plana da. "Hori izanik, etxebizitzak zaharberritu nahi dutenendako dirulaguntzak asko handitzen dira". 3.000 euro daude horretarako. Bestetik, Sakananet Internet sarera aurtun 7.000 euro bideratuko ditu udalak. 5.500 euro proiekturako eta 1.500 euro Guifineteko kide egiteko. Azken horrekin Internet konexio bat 10 urtez doan izanen du, ludotekan jarriko dena.



948 460 162 · Etxarri Aranatz

Bi hilerritatik etorri dira 36ari buruzko berriak

Bilboko Begoñako hilerriko hobotik berreskuratu dute Lucas Galvete Gainza zenaren gorpuzkia. Bestetik, Donostiako Polloeko hilerriko mausoleo frankistan gutxienez 17 errepublikazale lur emanda daude, tartean Eloy Zufiaurre Garcia altsasuarra

ALTSASU / OLATZAGUTIA

Astelehenean jaso ziren bi kanpo santuetakoen berri. Aranzadi Zientzia Elkartek jakinarazi zuen, dokumentazioa aztertu ondoren, Donostiako Polloeko hilerrian dagoen mausoleo frankistan 17 miliziar eta gudari hilobiratuta daudela. Han bertan errepublikaren zale gehiago lur emanda egon daitezkeela gaineratu zuten Aranzadiko kideak. Guztiak ere Donostia babesteko frankisten kontra borrokatu zuten miliziarren gorpuzkinak lirake. Han lur emandakoen artean dago Eloy Zufiaurre Garcia altsasuarra. Casiana eta Antonioren semea, Zufiaurre 1912ko otsailaren 7an jaio zen. *El Hortalano* ezizena zuen eta pilotaria zen. Trenbideetako langilea eta UGTko kide zen. Herri Milizien kide zela Loiolako kuartelaren kontrako eraso batean hil zen, 1936ko garilaren 24an, 24 urte zituela. Ezkondu gabe zegoen Altsasu Memoriak jakinarazi duenez, haren anaia Isidro Donostiako kuartela hartzeko ekin-tzan parte hartu zuen eta 1937an Bilboko Artxanda mendiko borroka batean hil zen (23 urte). Haien anai zaharrena, Juan Ignacio, errepublikaren alde borrokatu ondoren Frantziara pasa eta Gurseko kontzentrazio eremuan preso izan zuten.

Aranzaditik jakinarazi dutenez, 1940ko garilaren 8an edo 9an lekualdatu zuten Zufiaurreren gorpuzkia aipatu mausoleora. Han lurperaturikoen izen-abizenak agertzen dira. Gehienak poliziak militarrek edo guardia civilak ziren. Gurutze handi baten azpian zera irakur daiteke: *Beren idealak, Jainkoa eta Espainia defendatzeagatik eraildako oroimenez. Otoitz bat haien ari-mengatik*. Aranzadi ikertzen ari da beste 14 errepublikar zale mausoleo horretan lur emanda ote dauden. Hori dela eta, Donostiako Udalak biktimen senideak



Eloy Zufiaurre Garcia. UTZITAKOA

DONOSTIAKO MAUSOLEOA EZ DA IKUSKATU. BILBOKOAK IDENTIFIKATZEKO DNA LAGINAK BEHAR DIRA

izan daitezkeen familiei dei egin die Udalarekin harremanetan jartzeko euren datuak eskuratu ahal izateko. Horretarako *Giza Eskubideak@donostia.eus* e-posta helbidera idatzi edo 943 481 975 telefonora hots egin behar da.

Begoña hilerrria

Bilboko kanpo santuko hobi batetik 1936ko estatu kolpearen ondoren sortu zen gerran hildako 46 pertsonen gorpuzkiak berreskuratu zituen Aranzadi zientzia elkarteak. Ordura arte haietako 42 non zeuden lurperatuta ez zen jakina. Aranzadi zientzia elkarteak identifikazio lanei ekin zion eta Eusko Jaurlaritzaren Gogora institutuak antolatutako ekitaldian, astelehenean, bost gorpuzkiri izen abizenak jarri dizkiotela azaldu zuen Beatriz Artolazabal Albeniz Berdintasun, Justizia eta Gizar-

te Politiketako sailburuak. Identifikazioak egiten hobian opatutako bost identifikazio xaflek lagundu dutela azaldu zuen.

Hala, 29.958 zenbakia duen plakari esker Lucas Galbete Ganuza zena ezagutu zuten. Olaztiarra, Valentina eta Franciscoren semea, 1904ko maiatzaren 22an jaio zen. Ezkongabea zen. 1936ko estatu kolpearen ondoren herritik ihes egin eta errepublikaren alde borrokatu zen. Gogora institutuak zehaztu duenez, CNTko 36. *Malatesta* batailoi anarkistan borrokatu zuen. 1937ko garagarriaren 14tik 18ra Bilbo inguruko Artxanda mendian izandako borroketan hil zen. Artolazabalek azaldu zuenez, dokumentazio historikoaren bidez egindako hasierako identifikazio horren ondoren, DNA laginak hartu eta gorpuzkiekin erkatu ondoren, identifikazio genetikoak egingo da. Hobitik ateratako beste 37 pertsonen identifikazioan aurrera egin ahal izateko, Gogora Institutuak 64 familiarekin du harremana, eta horien kasuak bat datoz identifikatu nahi diren biktimenarekin. Identifikatzeko DNA laginak behar dira.



Lurkide Konpromisoa sinatu duten kolektiboen batzarra. UTZITAKOA

Goi tentsioko lineei aurre egiteko, Lurkide konpromisoa

Dagoeneko 192 kolektibok bat egin dute. Bat egin nahi dutenek oraindik ere horretarako aukera dute

SAKANA

Nafarroa eta Euskal Autonomia Elkartaren artean goi tentsioko argindar linea bana egiteko asmoa dute Red Eléctrica Española (82 k-ko luzera) eta Forestaliak (244 km). Ibarra mutur batetik bestera zeharkatuko duten bi linea horiek paraleloan eraiki nahi dituzte. Elektrizitatea eramanez duten kableei eusteko 80 metro arteko dorreak aurreikusi dituzte. Guztira 800 bat. Bi proiektuak egingen balira Sakana 177 dorre jarriko lirake, 81 REE-renak eta 96 Forestaliarenak.

Egitasmo horien kontra egiten ari den Autopista Elektrikorik Ez! plataformak Lurkide Konpromisoa sustatu du. Dagoeneko gizarte, kultura, kirol edo auzo izaerako 192 erakundek sinatutako konpromisoak. Guztiek "bateraezintzat, onartezintzat eta zentzugabekieriaz jotzen du REEren Itxaso-Castejon/Muru Arterderreta lineari, hamarkada bateko lanaren eta borroka eredugarriaren ondoren birritan geldiaraztea lortu den proiektuari, Forestalia enpresaren Kyoko eta UME izeneko lineak gehitzea, ez baitiote hornidurari buruzko inolako premiari erantzuten, burbuila elektrikoaren ondoriozko putre funtsen interes espekulatiboek baizik". Lurkide Konpromisoarekin bat egin duten kolektiboen iritziz, "ez dago justifikaziorik aurrekaririk gabeko mehatxua diren proiektu horiendako". Azaldu dutenez "mehatxuak" leudeke ingurumena, paisaia, babestu-

tako espazio eta espezieak, pasatzen diren eskualdeetako biztanleen osasuna, ondarea eta etorkizuneko garapena. Horregatik, konpromisoa hartu duten kolektiboen iritziz, egitasmoak ikutzen dituen bi gobernuak kontra azaldu diren udalen ondoan egon beharko lukete.

Autopista Elektrikorik Ez! plataformak deituta, larunbatean Etxarri Aranatzeko egindako batzarrean kolektiboetako ordezkariak konpromisoa sinatu zuten. Sinadurak berekin dakar bakoitzari esleitutako lekuan lurra defendatzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak egitea. Plataformatik azaldu dutenez, oraindik ere Lurkide Konpromisoa sinatzeko aukera dago. Horretarako, *autopista-elektrikorikeysakana@gmail.com* e-posta helbidera idatzi.

Lurkide Eguna

Maiatzaren 29an izanen da. Igan-de horretan konpromisoa sinatu dutenek lineako dorreak kokatuta egonen diren tokietara joan eta talde argazkiak egingen dituzte. Hori 11:00etan izanen da. Egindako argazkiak plataformari bidali beharko dizkiote. Irudi horiek guztiak egunean bertan Etxarri Aranatzeko ospatuko den Lurkide Egunean ikusteko aukera izanen da 12:00etatik aurrera. Egun horretarako ere herri bazkaria antolatuta du plataformak. Izena eman nahi duenak aipatutako e-posta helbidearen bidez egin beharko du. Izen emate epea astelehenean despedituko da.

Argiteria eta udal eraikinetan inbertsioak

Etxarri Aranazko Udalak aurten argiteria publikoaren eraginkortasuna handitzeko pauso handia emanen du. Bestalde, musika eskolan igogailua jarri, kanpinean aldagelak berritu eta padel pista egin eta eskolan aldagelak eta atea berrituko ditu

ETXARRI ARANATZ

Aurten Etxarri Aranazko Udalak 2.387.655,82 euroko aurrekontua du, joan den urtekoa baino 13.117,88 euro txikiagoa. Silvia Marañon Chasco alkateak azaldu duenez, inbertsioetara 475.357,95 euro bideratuko dituzte. Zatiarik handiena, 11.743,5 euro, argiteria publikoa eraginkortasun eta jasangarritasun baldintzetara egokitzera bideratuko dute. "IDAEri 2017an egin genion dirulaguntza eskaera. Orain jaso dugu baiezkua, baina, dagoeneko, hainbat lan eginak ditugu. Horregatik, proiektua moldatu dugu; eginda dagoena kendu eta beste lan batzuk sartu ditugu. Orain 60.000 bat euroko dirulaguntza jasotzea espero dugu", esan du alkateak. Marañonek azaldu duenez, argiteria publikoko bonbillak LED argiengatik aldatzeaz aparte, Burundabide kaleko hargunea ere berrituko da. "Argiteria eraginkorragoa izateko pauso handia emanen dugulan horiek eginda, gutxi geldituko da lan horiek guztiz despeditzeko", gaineratu du.

Kanpinaren azpiegiturak berritzen joateko urtero inbertsioak egiten ari da udala. "Aurten aldagelak berrituko ditugu, beste premiarik ez bada sortzen behintzat". Baina, horrekin batera,



Padel pistako lanak aurreratuta daude. ETXARRIKO KANPINA

Etxarri Aranazko Udalak kanpinean dagoen tenis pista eraberrituko du eta padel pista bihurtuko du. "Kanpina zerbitzu berri batekin hornituko dugu, baina etxarriarrendako zerbitzua izanen da. Igerilekueetan bezala, herritarrek izanen dute lehen-tasuna eta merkeago erabili ahal izanen dute" esan du Marañonek. Padel pista egiteko 25.000 euro bideratu ditu udalak. Ariketa fisikoarekin zerikusia duen beste inbertsioa kalistenia parkea izanen da, Lazkoz eta Txikia kaleen arteko plazan, izarran,

jarriko dena. Horrek 12.800 euroko inbertsioa eskatuko du. Plaza berean adinduek ariketak egiteko makinak daude.

Eraikinak

Hiru udal eraikinetan ere inbertsioak eginen dira. Batetik, musika eskolan igogailua jarriko da aurten. Eraikina zaharberritu zenean igogailua jartzeko zuloa prest utzi zen eta orain hura betetzeko 30.000 euro bideratu ditu udalak. Bestetik, San Donato eskola publikoan udalak bi inbertsio eginen ditu: zahar-

kituta dauden komunak berritu eta sarrerako atea berritu. Udan eginen diren lan horietara 43.000 euro bideratuko ditu udalak, eta Hezkuntza Departamentuaren dirulaguntza jasoko du. Ikasno-va ikasgelaren bigarren fasea ere egin nahi zuen udalak, baina laguntza faltagatik, 20.000 euroko inbertsioa eskatzen duen lan hori heldu den urtean eginen du.

Hiltegian zatikatze gela egiteko lanak joan den urtean despeditu ziren. Aurten hura dagokion tresneriaz hornitzea tokatzen da. Horretarako, udalak Cederna-Garalurren bidez Europako funtsari dirulaguntza eskatu zion, baita jaso ere. Bestetik, EH Bilduk Nafarroako Gobernuarekin herrialderako aurrekontu akordioa lortu zuen joan den urtean eta haren bidez 75.000 euro bideratu ziren helburu horretarako. "Garalurren dirulaguntzari uko egin diogu inbertsioaren %60 bat ordaintzen zuelako eta gobernuarenak %100. Guk inbertsioa egin ondoren jasoko dugu laguntza. Eta espero dugu gela udazkenerako martxan izatea", azaldu du Marañonek.

Bideak eta beste

Udalak aurten dermioako hainbat bide hobetuko ditu, behar den zatietan porlanarekin. Gainera, sasiak garbitzeko lanak ere aurreikusi ditu. Horiek egiteko 52.557,3 euro ditu. Hilabete baino gutxiago gelditzen da San Adrian egunerako. Ohi bezala, garagarriaren 16ko joan-etorriak erosoago egiteko bidea txukunduko du udalak. Alkateak aurreratu duenez, "San Adrian ondoren bidea konpondu egiten dugu, urtero txukuntzen ez ibiltzeko asmoz. Gehien hondatzen den bide zatietan porlana jarriko da. Lan

horietarako 25.000 euro aurreikusi ditugu".

Herriko aurrekontuetako berritasuna *Solasean* programa da, Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuarekin eta Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin batera garatu eta udalak finantzatuko duena. Marañonek azaldu duenez, "migranteak seme-alabekin ikasturte erdian etortzen direnean, ikasleen errendimendua ez jaitzeko eta harremanak sustatzeko helburuz jarriko da programa martxan". Egitasmo berri horretarako 4.000 euro jarri ditu. Etxarri Aranazko Udalak, bestalde, 43.000 euroko ekarpena egiten dio aurten Sakanako Mankomunitateari, "herriek gehiago ordaintzea erabaki dugu, bere ekonomia egoera ona ez delako eta aurreikusitako inbertsioetarako diru poltsa osatzen hasi behar delako".

Gainontzeko udalen modura Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planera zer inbertsio aurkezten ari da udala. "Uraren behe hornidurako sarean hobekuntzak egin ondoren, orain goi horniduran egin nahi dugu: Amaiturrietako ur hargunea konpondu. Plana horretarako baliatu nahi genuen, baina Europako deialdi bat sortu da eta hura baliatuko dugu", esan du alkateak. Planetik aurten 80.000 euro jasoko ditu udalak nahi duen inbertsioetan erabiltzeko, eta hurrengo urtetan 43.000 euro.

DERMIOKO HAINBAT BIDE KONPONDUKO DIRA, BAITA SAN ADRIANERAKO BIDEA ERE

Udako jaietan egizu gurekin topa!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 996978279 - Gailurik 80208 11 - ALTSASU

Etixerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

%25 DESKONTUA

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 - ALTSASU

MAPFRE
La aseguradora por tu confianza

Txalaparta

AMERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Ekitaldiz betetako asteburua dute lakuntzarrek

Aparteko mugimenduko asteburua izanen da honakoa Lakuntzan. Udalak iganderako bertako produktuen azoka antolatu du. Lakuntzako plazatik 10:00etatik 15:30era pasatzen denak 16 elikagai (txerriak, pastelak, konterbak, marmeladak, txokolateak, taloak, gazta) eta 10 artisau (zurezko jostailu eta osagarriak, ezpelezko etxe tresnak, poltsak, xaboiak, bitxiak, larrua, pilotak...) postu opatuko ditu. Gainera, eguerditik aurrera herriko azienda (ardiak, ahuntzak, poniak eta behorrak, oiloak...) ikusgai jarriko dute abeltzainek.

Larunbatean Elai Alai dantza taldearen eguna izanen da. 12:00etan erraldoi konpartsak lagundutako kalejira izanen da. 16:30ean apar festa dute eta 19:00etan dantza saioa eskainiko dute. Hura despeditzean, 19:30ean, buruhandiak aterako dira. Eta 21:30ean zezensuzkoarekin bukatuko da ospakizuna. Arratsaldean jokatu den VI. tortilla txapelketa jokatu da. Oinarriak www.lakuntza.eus webgunean daude. Parte hartu nahi dutenek lakuntzakultura@gmail.com e-posta helbidean eman beharko dute izena. 17:00etan, pasa beharko dute osagaiak jasotzeko. Tortillak egin ondoren, haiek 18:30ean aurkeztu beharko dituzte. Epai-leen iritziak banatuko ditu sariak.

Udal azpiegituren erabileraz aritzeko batzar irekia

Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) eta Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) herriko eragileak eta altsasuarrak larunbatean, 12:00etan, Foru plazan egingen den batzar irekiera gonbidatu dituzte. Deitzaileen helburua da "udal azpiegiturak kalitatezkoak, doakoak eta unibertsalak aldarrikatzea da dagoen arazoa mahai gainean jarri eta irtenbideak bilatzeko". AGA eta GKSko kideek adierazi dutenez, batzarrean "dinamikaren puntu nagusiak erabakitzeaz aparte, dinamika beraren nondik norakoez hitz egingen da".

Udal azpiegiturak erabiltzeko garaian arazoak daudela nabarmendu dute deitzaileek: igerilekuen sarreraren igoera; kirola praktikatzeko duten hainbat altsasuarrek beste herritan aritzen dira merkeago delako; aparkatzeagatik ordaintzeko aukera; liburutegiak ikasteko baldintzak ez dituela betetzen eta goizez itxita egotea; auzolan taldeak erabiltzen duen bajera egoera penagarrian dagoela eta materiala usteltzen ari da; kultur talde batzuk entseatzeko tokirik ez dute; Iortian aritzen direnak kanporatuak izateko arriskua; Zelandiko lokalak konponketrako laguntza eza edota Gure Etxea eraikinaren gainean udalaren "erabateko kontrola".

Datu zehatzak eta eskaerak mahai gainean

Haur eskoletako ratioak jaitzi eta soldatak igotzeko proposamen zehatza egin die Nafarroa 0-3 plataformak Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari. Konpromiso zehatzak lortu arte grebak segituko du

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU
Nafarroa 0-3 plataformak deitutako protesta herrialdean dauden 103 haur eskoletatik 77k babesten dute. Gainera, 59tan mugagabeko greba egiten ari dira. Ratioak jaitzi eta soldatak igotzeko aldarrikapenaren alde beste haur eskola batzuk batzen doaz pixkanaka eta, horrek, deialdia eta eskaerak berresten dituela uste dute deitzaileek. Baita zenbait politikok kendu nahi dieten zilegitasuna ematen dielako.

Testuinguru horretan elkartu zen Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak eta Hezkuntza eta Lurralde Kohesio departamentuek osatutako mahaia asteazkenean. Bileran, gonbidatu gisa, plataformako kideak eta Hezkuntzako Zuzendari nagusi Angel Sevillano izan ziren. Plataformako kideak bilerara etxeko lanak eginak joan ziren eta gainontzeko mahaikideei proposamen zehatz bat aurkeztu zieten. Ratioei dagokienez, Europako Batzordearen Haurtzaroren Arretarako sareak aholkatutakoa proposatu zuten: urtea baino gutxiagoko lau umeko hezitzaile bat egotea; urtea eta bi urte arteko sei umeko hezitzaile bat eta bi eta hiru urte arteko zortzi umeko hezitzaile bat. Ratioak jaitzeko aukera bat langile gehiago kontratatzea dela mahaigaineratu zuten.

Soldatei dagokienez, lehenik eta behin eskatu zuten erreferentzia bezala Nafarroako administrazio publikoaren soldata taulak kontuan hartzea, eta ez estatukoak. Zuzendari eta hezitzaileendako %12ko bi osagarri (ardura eta pedagogia) eskatu dituzte. Prestakuntza eta antzinatasun (hiru urteka) osagarriak kobratzeko eskubidea dutela adierazi zuten. Azkenik, urteko lanaldia 1661 ordutatik 1592ra pasatzea eta azken horietako 35 ordu prestakuntzarako izatea eskatu zuten. Plataformaren eskaerak kontuan



Sakandarrek 0-3ko grebalariei elkartasuna adierazi zieten.

PROPOSAMENARI BURUZKO IRITZIA HELDU DEN ASTEAN EMANEN DUTE MAHAIKIDEEK

izanik, zuzendari bat urtean 40.197,98 euro kobratzera pasako litzateke (%29,56), hezitzaile bat 33.333,68 euro (%45,37) eta zerbitzu anitzetako langile bat 26.287,72 euro (%36,97). Plataformatik adierazi dutenez, ikasturte berriko hasierarako aldatetako nahiko litzukete ratio eta soldaten inguruan.

Besteek heldu den asterako proposamenaren inguruko iritzia emanen dute. Izan ere, greba dela eta, plataformak proposatuta bilerak astero egingen dituzte. Plataformako kideek nahi lukete federazioko eta gobernuko ordezkariak hurrengo bilerarako haien proposamen zehatzak egitea. Bitartean, eta konpromiso zehatz batzuk izan arte Nafarroa 0-3 plataformak greba mugagabeko deialdiari eusten dio. Bestalde, haur eskolen ordezkariak ez dute ahaztu, batetik, sor-

tutako mahaia ez dela haiek eskatzen zutena, ez baita negoziazio mahaia eta ez baitira eragile aktiboak, gonbidatuak baizik. Gainera, argi dute mahai horretan onartzen dena ez dela loteslea. Izan ere, han adostutakoa ondoren, Nafarroako Parlamentuan aurrekontuarekin, diruarekin, ez bada babesten, egoera berean egonera gara.

Bitartean Altsasuko haur eskolara guraso batzuk ere umeak eramateari utzi diote eta grebalaria eta lanean ari diren langileek eskertu diete aparte moldatu izana. Altsasun bi hezitzaile daude greban eta beste bi lanean. Horietako bat bajaran dago greba hasi aurretik eta ordezkoren faltan, greba hasieran hezitzaile bakarra izan zen lanean. Ordezkoa lanean dago, baina, berria denez, umeek ez dute ezagutzen oraindik. Hezitzaileak topera lanean ari dira, egunez egun moldatzen, baina etsita diote ezin dutela zerbitzu onik eman eta haur eskolaren esentzia galtzen ari dela zentroa, "oso zaila da umeen beharren erritmoa errespetatzea"; haur eskola beharrean haurtzaindegia bihurtzen ari dela diote.

DUELA 25 URTE...



Bakaikuko kaleak hankaz gora

Maiatzean hasi ziren Bakaiku berri eta apainduko zuten lanak. Baina haiek bukatu bitartean nahiko lohi eta zikinkeria izan zuten bakaikuarrek. Ur sarea berri zuten. Ordura arte batera jasotzen zituen euri urak eta ur zikinak eta horrek usain txarrak eragiten zituen. Bakoitzarendako hodi bat jarri zen. Eta behin zulatuta gas sarea ere zabaldu zen herrian. Horiek despedituta zorua berri zuten. Lanak Obenasa enpresak egin zituen ia 77 milioi pezetaren (462.779,3 euro) truke. Nafarroako Gobernuak lanen %73 diruz lagundu zion udalari.



Zintzilarioen atzean dagoen berdegunean eraikiko litzateke eraikina. ARTXIBOA

Babes ofizialeko etxeak egiteko asmoa

Arbizuko Udalak San Joango bidea kalean dauden partzela batzuk Nasubinsa enpresa publikoaren esku utzi nahi ditu han babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ditzan. Gazteei zuzenduta eta alokairuan hartzeko lirateke etxe horiek

ARBIZU

Herritarrei etxebizitzarako sarbidea errazteko ahaleginean beste pauso bat eman du Arbizuko Udalak: San Joango bidea kalean dauden sei partzela desafektatzeko espedientea onartu du. Hura behin betiko onartu ondoren udalaren asmoa da lursaila Nafarroako Gobernuaren Nasubinsa enpresa publikoari doan uztea, han babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ditzan. Javier Razkin Flores alkateak azaldu duenez, "desafektazio prozesuak luze joko du. Ondoren, Nasubinsarekin hitzarmena sinatuko du udalak eta hor zehaztuko dugu zeini bideratuta egonen diren etxebizitza horiek". Razkinek

gaineratu duenez, "gutxienez bost etxe egiteko aukera dago". Partzela guztien batura 407,1 m²koa da, eta denen artean 86 metroko perimetroa dute.

Ez da lursail horietan etxebizitzak eraikitzeke Arbizuko Udalak egin duen aurreneko saiakera. 2020ko irailean jakinarazi zuen bere bederatzai lursail enkante bidez salgai jarri zituela. "Handienak saldu ziren, eraikitzeke aukera gehiago ematen zutenak. Hauek ez ziren saldu txikiegiak direlako eta bakarka etxe bat egiteko ez dutelako ematen, elkarrekin bai", azaldu du alkateak.

Etxebizitzarako sarbidea emateko beste ahalegin bat ere egin du Arbizuko Udalak legegintzal-

di honetan. Erdi eraikita dagoen etxebizitza eraikin baten jabearekin eta Nasubinsa enpresa publikoarekin hitzarmena itxi zuten. Haren bidez gizarte alokairuko bost etxebizitza sortu behar ziren. Baina egitasmo hori "hoztu" egin da.

Bestalde, Arbizun 60 bat etxe hutsik daude. Jabeek Nasubinsaren bidez etxebizitzak alokatzeke aukera dute. Hala egiten dutenek bermatuta izanen dute hilabeteroko diru sarrera, eta baldin eta maizterrek etxean kalteren bat sortuko balute Nasubinsa arduratuko litzateke haiek konpontzeaz. Alokairuan bizi nahi duten errolda ere badu Nasubinsak.



Patxi Xabier, Rita, Begoña eta Izaskun. UTZITAKOA

Lakuntzar berriei erakunde harrera eginen diete

Larunbatean, 12:00etan, izanen da, udaletxean. Herriaren parte direla adierazi nahi zaie

LAKUNTZA

Kultura aniztasunaren nazioarteko eguna ospatuko da larunbatean. Data hori baliatuko du Lakuntzako Udalak herritar berriei erakunde harrera egiteko. Udaletxera joaten diren lakuntzar berriei Patxi Xabier Sagastibeltza Razkin alkateak, Rita Torrico Muniz zinegotziak eta Txingurriye taldeko ordezkari batek eginen diete harrera. Haiekin batera egonen dira Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko Begoña Zestau Baraibar eta erakunde bereko Euskara Zerbitzuko Izaskun Errazkin Beltza.

Erakundeetako ordezkariak lakuntzar berriei herrira ongi etorriak direla esateko baliatuko dute. Harrera hori eginez, udala eta zerbitzuak herritarrei hurbildu nahi zaie, baina herritarrek udalera ere hurbiltzeko modua izan nahi du. Herrian eskura

zein zerbitzu dituzten azalduko diete. Gainera, Mank-eko zerbitzuek beraien egitekoen berri emanen diete lakuntzar berriei. Aldi berean, gurean euskara ere badela azalduko diete. Azken finean, lakuntzar berriei herriaren parte direla sentiarazi nahi diete harrera ekitaldiarekin. Joaten direnek erakundeetako ordezkarien eskutik ongi etorri euskarriak jasoko dituzte.

Egun seinatua denez larunbatekoa, ongi etorria dozena bat hizkuntzetan adierazten duen lona erraldoia egonen da zintzilik Lakuntzako udaletxeko fatxadako balkoitik, hainbat hizkuntzei keinu egin eta ongi-etorria ere emanez. Larunbatean udaletxera joaten direnek hitza hartu eta beraien bizipenak, proposamenak, kezak, ideiak... kontatzeko aukera izanen dute. Harrerak kalean izanen du segida.

¿QUÉ HACER PARA QUE LOS NIÑOS Y NIÑAS LEAN (MÁS) EN EUSKERA?

HITZALDIA-TALLER-CONFERENCIA

NORK?

Sarao Bikendi. Asociación GALTZAGORRI Elkarte.

NORENTZAT?

Para familias y profesionales de la educación, cuidado y mediación. Para cualquiera que tenga interés en la literatura infantil y juvenil.

NOIZ?

7 de junio, martes, de 10:00 a 12:00 horas.

NON?

Casa de cultura de OLAZTI-ko kultur etxean.

IZENA NON EMAN?

Para participar en el taller hay que inscribirse en: euskaral@sakana-mank.eus.

ZEIN DA HELBURUA?

Fomentar la lectura en euskera entre niñ@s y jóvenes. Irakurketa euskaraz bultzatzea.



En castellano

60
-
%80
=
12

Guaixe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 60 euro ordaindu eta 48 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2021ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua. (Altsasu)



Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Egunero ez da final bat jokatzeko, eta hori oso argi du Joseba Ezkurdia Galarragak. Une gozoa ari da bizitzen, astebete barru bere lehendabiziko Buruz Buruko finala jokatu delako Unai Lasoren kontra, non, eta Nafarroa Arenan. Gozatzen ari da eta gozatzen jarraitu nahi du.

Buruz Buruko aurkezpenean esan zenuen Nafarroa Arenako finalean egon nahi zenuela eta lortu duzu.

Bai, eta gustura! (kar, kar...) Esandakoa ez da beti betetzen, baina kasu honetan hala izan da eta pozik. Hasieratik txapelketa honek ilusio berezia sortu zidan, hainbat faktorek bat egin zutelako. Buruz Buruko finala Nafarroan eta frontoi berezi horretan, Iruñean, jokatzeko asko motibatzen ninduen. Eta horri lotu behar zaio une onean iritsi nintzela txapelketara, ilusioz gainezka eta sekulako motibazioarekin. Finala jokatzeko aukera dut eta oso pozik nago.

Buruz Buruko bitxia izan da, final laurdenetako ligaxka lehendabizikoz jokatu delako. Formatu ikusgarri bezain arriskutsua, finalerdietara ligaxkan partida bakarria jokatu iritsi zinen.

Lehen partida Agirreren kontra jokatu nuen, final zortzirenetako kanporaketan. Tentsio handiko partida izan zen niretako, galduz gero etxera nindoalako. Hasieran sufritu nuen, baina gero hobeki jokatu eta azkenean 22 eta 7 irabazi nuen. Final laurdenetan Zabaletaren kontrako partida oso gogorra izan zen, estua, tentsio handikoa. 21 eta 22 irabazi nuen, eta sekulako paliza hartu genuen. Bizpahiru eguneko atsedena hartu behar izan nuen errekupeatzeko, ez bainion bueltarik ematen.

Finalerdian partida perfektua egin zenuen Erik Jakaren kontra. Ikusgarri jokatu zenuen.

Finalerdietara kezka puntu horrekin iritsi nintzen, Altunaren eta Darioren kontra jokatu ez izanagatik erritmo falta horrekin ea nola egongo ote nintzen, baina ongi nengoela mentalizatuta nengoan, gauzak ongi egin nitzela. Kemen handiarekin jokatu nuen, uneoro zer egin nahi nuen jakinda: airez, joko azpitik, botean... sentsazio onekin jokatu nuen. Emaiza (22 eta 2) oso ona izan zen, baina garrantzitsuena da konfiantzaz beteta atera nintzela frontoitik, joko puntu oso onarekin.

"Disfrutatatu nahi dut; ez naiz hiruko koroan pentsatzen ari"

JOSEBA EZKURDIA GALARRAGA PILOTARIA

PILOTA Buruz Buruko bere lehenengo finala jokatu du Ezkurdiak Lasoren kontra. Hori da falta zaion txapela bakarra, baina ez dago itsututa: uneaz gozatu nahi du



Joseba Ezkurdiak azaldu du txapelketa honek hasieratik ilusio berezia sortu ziola.

Ongi errekupeatu al zara?

Bai. Ez zen partida gogor-gogor horietakoa izan, baina bai tentsio handikoa. Dutxan bola guztiak igo zitzaizkidan, tentsioagatik. Halakoetan gertatu izaten zait, baina ongi nago jada, finala prestatzen.

Biondako zuen Buruz Buruko lehen finala izango da. Ez zaizu arerio erraza tokatu.

Unai Laso arerio oso zaila da. Bigarrenenez profesioaletara igo zenetik sekulako maila ematen ari da eta jokatu diren txapelketa guztietako finalerara sailkatu da. Gorenean dago. Pilotan jokatzeko dohain handia du, txispa handikoa da, pilotari sekulako abiadura ematen dio, tantoa erraz bukatzen du eta asko gozatzen du. Aurkari zaila da, baina partida polita. Final gogorra izango da. Puntutxo batean Unai izango da faborito, momentuko pilotaria baita. Zaila izango dut.

Zu ere sasoi beteaz zaude.

Bai, ongi nago, txisparekin eta badakit nirea egiten badut irabazteko aukera izango dudala. Horri eutsi beharra diot. Nire lanean kontzentratu, defendatu behar denean ongi defendatuz

"OSO HARRO NAGO EMATEN ARI NAIZEN MAILAREKIN ETA EGITEN ARI NAIZEN IBILBIDEAREKIN"

eta tantoak egin behar direnean beldurrik gabe arituz. Jokoaren ekimena hartu beharra dut, bestela, jai daukat.

Nafarroa Arenak oroitzapen onak ekarriko dizkizu, 2018ko eta 2019ko Lau eta Erdiak bertan irabazi baitzenituen, Altunaren kontra.

Frontoi zaila da jokatzeko, estrainu batzuk egiten ditu, baina gustatzen zait. Zoru oso ona du, frontoi goxoa da eta sekulako giroa egoten da. Unairendako ere frontoi ona dela uste dut. Bi finalak hor irabazteko zortea izan nuen eta ea aurtengoa ere hala den.

Kazetari batzuk galdetu dizute ea horrenbesterako garrantzia ematen al diozun finala Nafarroan jokatzeari. Ez gaitu nafarrak asko eza gutuko.

(Kar, kar...). Etxean jokatzeko ederra da. Finala Bilbon jokatu balitz ez litzateke berdina izango, nahiz eta frontoia beteta egon. Ez litzateke giro berdina egongo. Hobe etxean. Goizetik hasita Iruñean sortuko den giroa itzela izango da, Nafarroa Arenan lehertuko dena.

Nafarroa Arena bete egingo da. Zenbat sarrera eman dizkizute?

Uste dut 130 inguru direla. Arreba ari da kudeatzen. Familia handia gara, eta gero kuadrilla-koak ari dira antolatzen. Sarre-gehiago gustura hartuko nituzke, baina hau da dagoena.

Sanjuanak hilabete bat aurreratze-ko prest?

Zalantzarik gabe! Irabazi ala galdu, ospatu beharra dago, finala jokatzeko egindako lan guztien saria baita. Egunero ez da final bat jokatzeko, lan izugarria dago horren atzetik. Hau Buruz Buruko nire lehen finala da, eta finaleko egunaz, eta aurreko egunez ere disfrutatatu nahi dut. **Buruz Buruko txapela da falta zaizun bakarra. Hiruko koroa lortzeko presioa duzu?**

Agian beste txapelekin presio gehiago izan dut, baina txapelketa hau inoiz baino lasaiago ari naiz jokatzeko. Ez naiz hiruko koroan pentsatzen ari; etortzen bada handia litzateke, baina ez bada etortzen ere oso harro nago ematen ari naizen mailarekin eta egiten ari naizen ibilbidearekin.

Txapela lortuz gero hiruko koroa lukeen lehen sakandarra zinateke. Pilotaren historian hiru txapelak dituen bederatzigarren pilotaria izatea sekulakoa litzateke. Lortuko banu, ez nuke sinistuko.



Iker Mintegi Urdiainen jo zuen erasoa, eta Iturmendiko helmugan metro batzuetako aldea atera zien jarraitzaileei. LABORAL KUTXA

Nafarroako Itzulira topera iritsiko da

TXIRRINDULARITZA Iker Mintegi Claverrek afizionatuen mailako lehendabiziko lasterketa irabazi zuen igandean, Iturmendi Trofeoa. Maiatzaren 26tik 28ra jokatu den Nafarroako Itzulian lan ona egin nahiko luke

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Afizionatuen mailako bigarren urtea du aurtengoa Iker Mintegi Claver altsasuarrak (Laboral Kutxa) eta pozik egoteko arrazoi asko ditu, igandean afizionatuen mailako bere lehen garaipena lortu baitzuen, Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatutako X. Iturmendi Trofeoa. Lehen garaipena lortzeko egoten den

presio hori gaintitu du, bada, altsasuarrak. "Lana ongi egitearen emaitza da. Denbora asko neraman irabazi gabe, eta pozik nago" azaldu du Mintegi.

Ez zuen denboraldi hasiera ona izan, otsailean Essor Basquen erorikoa izan eta eskumuturrean haustura egin zuelako. "Horrek denboraldia aldatzea ekarri zuen. Erorikoa izan eta bi egunetara

arrabolean hasi nintzen lanean, baina errepidean hasi nintzeneko hiru aste pasa ziren. Dena den, ordutik egindako lanari esker gutxika galdutako maila hori berreskuratu dut, lasterketen erritmoa, bereziki, eta orain pozik nago ematen ari naizen mailarekin" azaldu du.

Maiatzaren 8an Natxituan jokatu Euskadiko Txapelketan

hirugarren sailkatu zen Mintegi, esprintean, eta aurretik Bidasoako Itzulian lan ona egin zuen. Bidasoako bigarren etapan hamaikagarren sailkatu zen eta hirugarrenean zazpigarren. Sailkapen orokorrean hemezortzigarren izan zen, kontentu egoteko modukoa. "Lehenengo egunean zulatua izan nuen, pena, sailkapen orokorrari begira hor galdu bainuen denbora gehien, baina, egia esan, pozik Bidasoan izandako sentsazioekin eta lasterketan ongi aurkitu izanarekin" aipatu du.

Iturmendi, "oso azkarra"

Iker Mintegik igandean borobildu zuen aurreko asteetatik su eztitan sukaldatzen ari zena. Iturmendi Trofeoak aurten ibilbide berria zuen. Antolakuntzak zirkuitu bat prestatu zuen, Altamira portua hartzen zuena, eta zirkuitu horri zortzi itzuli eman behar izan zizkioten txirrindulariek. "Oso lasterketa azkarra izan zen, eta uneoro norbaitek aurrera egin nahi zuen. Haizeak asko gogortu zuen lasterketa, eta etengabe ihesaldiak egon ziren, baina tropelak ihes egindakoak harrapatu eta guztia berriz hasten zen zerotik. Azkenean, txirrindulari talde batzuk aurrera egin genuen, aldea hartu, eta hortik aurrera erasoaldiak gure artean hasi ziren" kontatu du Mintegik. Txirrindularien abiadura ikusgarria izan zen, Altamira ziztu bizian nola jaisten zuten. "Egia esan, afizionatuen maila nahiko ona da eta azkar joan ginen, bai. Gezurra badirudi ere, ihesaldiak sortzea kosta egin zen, tropelak zuen abiadurarengatik" gaineratu du.

Azkenean bederatzikote bat geratu zen aurrean, Mintegi eta Laboral Kutxa bere taldeko bes-

te hiru txirrindulari barru, eta euren artean erabaki zen garaipena. "Azken bueltan Altamira aurretik Unai Zubeldia taldeki-deak erasoa jo zuen, baina Urdiainera iristen, Viscofango aldatxo horretan harrapatu genuen. Hor nik jo nuen erasoa eta helmugaraino zuzen joan nintzen" azaldu du. Joan zen urtean Igor Arrieta gailendu zen Iturmendin eta aurten Iker Mintegik, beste sakandar batek hartu du lekukoa. "Pozik, dena etxean geratzen delako" dio Mintegik.

Garaipena lortu izateagatik pozik dago, "bereziki hor egoteko gaitasuna duzula ikusteagatik. Aurrean egoteko aukera izan nuen eta ondo erantzun nuen, baina hau bide luzea eta zaila da eta lanean jarraitu beharra dago" oso argi du.

Nafarroako Itzulia, Sakanan

Mintegik igandean LI. Urrakiko Igoera jokatu du Azpeitian, Gipuzkoako Txapelketa izango dena, eta maiatzaren 26tik 28ra Nafarroako Itzulian ariko da. Hiru etapa gogor dira, Zangoza, Kaseda-Izaba eta Lekunberri-San Cristobal gaina. "Azken etapa Sakanatik pasako da. Lekunberritik Madotz igo, Etxeberrira heldu, eta Uharte Arakildik San Migel igoko da, 20. kilometroan. Oso gogorra egingo zaigu, gero etapa luzea dugulako aurretik -Uitz, Usategieta, Markalain...- San Cristobal gainean bukatu baino lehen. Baina saiaturako gara" ez du zalantzarik.

"HAU BIDE LUZEA ETA ZAILA DA ETA LANEAN GOGOR JARRAITU BEHARRA DAGO" IKER MINTEGI

Iker Gomezen bigarren garaipena, Segovian

TXIRRINDULARITZA Larunbatean Segovian denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen Quesos Albenizkoak

Asteburuan Quesos Albeniz-Burunda taldeko txirrindulariek Gaztela eta Leongo bidea hartu zuten, bi lasterketa jokatzeko. Larunbat arratsaldean Segoviko lasterketan parte hartu zuten eta Iker Gomezek erakustaldi

ederra egin zuen, lasterketa irabazteaz gain, tartekako helmugen saria lortu zuelako. Ekain Perez Top Tenean sartu zen, bosgarren sartu baitzen. Iker Begiristain 23. izan zen, Ion Aierbe 37. eta Hegoi Garcia 43. Egindako lan

ederraren isla, taldekako saria lortu zuen Quesos Albenizek.

Igande goizean Valladoliden lehiatu ziren eta bezperako garaipena lortzeko egon zen talde sakandarra, baina akenean Iker Gomez bigarren sailkatu zen -tartekako helmugen saria lortu zuen altsasuarrak, eta taldekideek ere lan bikaina egin zuten.

Bestalde, asteburuan NKJ-etarako baliagarria den bigarren lasterketa hartu zuen Elizondok eta lan bikaina egin zuten Burunda eta Aralar taldekoek.

ZUMBA Noelia Fundazioaren aldeko Zumbathoia Arbizun

Jaiotzezko muskulu-distrofia gaixotasun degeneratiboaren ikerketa egiten duen Noelia Fundazioa lagunduko du Arbizuko Zumbathoi Solidarioak, maiatzaren 28an. 10:00etan haurren lasterketa izanen da eta 11:00etatik 13:00etara Zumba masterclassa, Elena, Mayra, Eva, Carolina, Gado eta Leizadi irakasleekin, bestelako erakustaldiekin bat.



Katrin Gineak gidatuko du Zumbathoia.



CBASK Jatorman. CBASK

SASKIBALOIA Zazpi saski gehiago play-offetan aurrera egiteko

Bigarren Maila Autonomikoko CBASK Jatorman titulua erabakitzeko play-offetan dago. Altsasuarrek Humiclima hartu zuten Zelandin, eta lehia borrokatuan Humiclima gailendu zen (52 eta 58). Larunbatean itzulerako partida jokatu dute Berriozarren, 17:20ean. Play-offetan aurrera egiteko, CBASK Jatorman taldeak zazpi saskiren aldearekin irabazi beharko dio Humiclimari.



Giro ona entrenamenduan. XOTA

ARETO FUTBOLA Xota Burela irabaztera, Lehen mailari eusteko

Sailkapenean 12. den Osasuna Magna Xotak 16. eta jaitsiera postuetan dagoen Pescados Ruben Burela taldea hartuko du gaur, ostirala, 20:30ean Anaitasuna pabilioian. Partida garrantzitsua da, irabaziz gero, Lehen mailako kategoriari eustea lortuko baitu talde berdeak. Zaleei babesa eskatu die klub irurtzundarrak, guztien artean beharrezkoak diren hiru puntuak lortzeko.

"Igotzeko, oraindik bi final ditugu aurretik"

MAITANE VILARIÑO MENDINUETA OSASUNAKO FUTBOLARIA

FUTBOLA Sadarren Reto Iberdrolako lider jarri zen Maitane Vilariñoren Osasuna, baina Lehen mailara igotzeko Barçaren eta AEM-en kontrako partidak irabazi beharra du

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Emakumezkoen Osasuna talde nagusiko aurrelari ausarta da Maitane Vilariño Mendinueta (2002-06-30, Olazti). Joan zen denboraldian Osasunako bigarren taldean hasi zen, Lehenengo Nazional Mailan, baina talde nagusiko entrenatzaile Kakun Mainzek zerbait berezia ikusi zuen, olaztiarrarengan sinistu zuen, eta talde nagusirako deitu zuen. Osasuna une honetan Bigarren mailako Reto Iberdrolako Iparraldeko Zonaldeko lider da, Levanterekin 56 puntura berdinduta eta Espanyol puntu batera duela. Liga despeditzeko bi jardunaldiren faltan, Osasunak irabazi beharreko bi final ditu aurretik Lehen mailara igotzeko. **Denboraldi ona egiten ari zara, zinez. Zenbat gol sartu dituzu?**

Momentuz Ligan hamaika gol daramatzat eta kopan bi. Zenbaki polita da, bai.

Espanyolen kontra igandean Sadarren bizi izan zenuten partida izugarria izan zen. Orduan lider zen Espanyoli 2 eta 0 irabazi eta Reto Iberdrolako lider jarri zineten ia 9.000 zaleren aurrean. Nola bizi izan zenuen?

Hasieran nahiko urduri nengoen. Autobusean joan ginen Sadarrera, eta handik jaisterakoan eta zaleak zain ikusterakoan dardarka hasi nintzen, urduri, Kakun Mainz entrenatzaileak hamaiakakoa esan zuenean lasaitu nintzen arte. Egia esan, partidaren nahiko lasai geunden jokalar guztiak, jokoan zenbat genuen kontuan hartuta, agian harritzekoa. Izan ere, Lehen mailara igotzeko borrokan partida irabazi beharra genuen, bai ala bai, soilik sailkapeneko lehen taldea igoko delako Lehen mailara. Beraz, oso pozik garaipena lortzeagatik, baina oraindik irabazi beharreko beste bi final ditugu aurretik.

Pentsatzekoa da Sadarren jokatzearahaztezina izango dela.



Maitane Vilariño asko gozatu zuen Sadarren. OSASUNA

"SADARKOA ILUSIO HANDIKO EGUNA IZAN ZEN. OSASUNAK GUGAN SINISTEN DUEN ERAKUSLE"

Bai, ilusio handiko eguna izan zen. Osasuna klubak guban sinisten duela erakusten du. Gauza asko elkartu ziren: gorritxo batendako Sadarren jokatzeara goren da, lider jarri ginen, igorarako borrokan jarraitzen dugu, Mai Garde kapitaina aurtan erretiratu behar da, Vanessari asteazkenean ebakuntza egin zioten... guk guztia genuen buruan eta motibazio bat zen. Eta horri guztiari zelaia atera eta mundu guztia animatzen zegoela gehitzen badiozu, ikaragarria. **Zaleek airean eraman zintuzteten eta 2 eta 0 irabazi zenuten, Patri Zugastik 25 metrotik egindako jaurtiketari eta Miriam Rivasek gurutzatuta sartutako golari esker.** Bai, partida ona egin genuen, baina guk jada burua datorrenean dugu. Beste bi final falta dira, eta une honetan igandean Barçaren kontra jokatu dugu

partidan pentsatu beharra dugu (11:30, Joan Gamper estadioa). Partida hau oso ongi prestatu dugu, Barça etxean jokatzeko talderik onenetariko bat baita. Oso partida zaila izango da, eta ezin gara fio. Ikusi genuen zer gertatu zitzaigun duela aste pare bat Lezaman, bana berdindu genuenean. Barçaren kontra Sadarren egindakoa ez badugu errepikatzen, orain arte egindakoa ez du ezertarako balio izango.

Barça seigarren da sailkapenean, baina Barça ez da edonolakoa.

Bai, eta beraiek ere asko dute jokoan. Datorren denboraldian kategoria berri bat sortu behar dute Bigarren mailan, orain jokatzeko Reto Iberdrolaren gainetik egongo dena. Uste dut 1. RFEF maila izango duela. Egungo Reto Iberdrola bi kategoriatan banatuta dago, Iparraldeko Zonaldea eta Hegoaldeko Zonaldea, eta sortuko den 2. mailako kategoria berrian estatu osoko taldeek jokatu dute, ez da zonaldeka banatuta egongo. Reto Iberdrolako lehen lau taldeak igoko dira kategoria berrira, eta beste taldeek play-off moduko bat jokatu dute. Maila berri

horretara igotzeko Barçak puntuak behar ditu. Beraz, bi taldeek asko dugu jokoan.

Azken partida etxean jokatu duzue, maiatzaren 28an, Lleidako AEM taldearen kontra.

Hauek ere sortuko den maila berri horretan sailkatzeko puntuak behar dituzte. Beraz, jokoan asko dagoen bi partida oso zailak ditugu aurretik, irabazi beharreko bi final, bestela ez gara Lehen mailara igoko.

Emakumeen futbol antolaketan aldaketak badaude, emakumezkoen futbolak gora egin duen seinale.

Bai, talde gehiago, liga gehiago, profesionaltasun gehiago... hori poztekoa da, emakumezkoen futbolearen dirua sartzen ari den isla. Salto handia egon da. Esaterako, gaur egun klubeko sare sozialetan agian gurea ez da lehendabiziko publikazioa izango, baina bai bigarrena. Eta hori asko eskertzen da.

Bi hitzordu garrantzitsu horien aurrean animoz nola zaudete?

Duela bi aste Athleticekin bana berdindu ondoren urduritasuna sortu zen. Espanyolen kontra Sadarren guztia genuen jokoan, eta irabazita, beldur hori gainditu dugu. Lider gara eta Levanterekin berdinduta gaude puntutan, baina golaveragea gure alde dago. Beraz, argi dagoena da ezin ditugula ditugun bi partida horiek galdu ez berdindu: bi partidak irabazi beharrean gaude. Animo hobeki gaude, baina tentsio hori mantentzen da, irabazi beharra dugulako. Eta uste dut presio hori izatea ongi dagoela.

Olaztiarrak Sadarreko partida ikustera joan al ziren?

Familiakoak joan ziren, herriko jende asko ere, klasekoak... eta eskertzen da, benetan. Herrikoak hor egotea eta zure ibilbidea jarraitzea handia da. Olaztira noanean askotan kalean gelditzen naute, aurreko partida irabazi genuela esateko, edo nola gauden galdetzeko... Jarraitzen didate, eta horrek betetzen nau. Jakina, familia, beti bezala, atzean dut. **Biokimikako ikasketak zer moduz?** Oso ongi. Gustuko karrera da, hori da garrantzitsuen, eta ikasketak oso ongi daramatzat.

Oporrak iristeko gogotsu egongo zara.

Lehendabizi, ea Lehen mailara igotzerik dugun. Ikaragarria litzateke. Horren arabera goizago ala beranduago hasiko dugu hurrengo denboraldia.

Etxarri Aranatzek eta Lagun Artearen borroka ez da bukatu

FUTBOLA Etxarri Aranatzek ligako azken jardunaldia jokatu du larunbatean Villatuertan

Preferente mailako liga asteburu honetan despidituko da. Etxarri Aranatzek larunbatean 17:30ean Villatuertan jokatu du Ondalan taldearen kontra. Egun, sailkapenean hamaikagarren da Etxarri (37 puntu), jaitziera postuak 4 puntura dituela. Ondalan taldea seigarren postuan dago eta ez du ezer jokoan, baina partidak emango duena ikusteko dago. Gainera, gainontzeko ligetan gertatzen denak ondorioa izan dezake. "Hirugarren mailako taldeak jaitzen direnez, horrek gainontzeko mailetan ere jaitziera

rak ekartzen ditu atzetik, eta aurten bost talde beharrean sei jaitziko direnez... ikusiko dugu zer gertatzen den. Azken unera arte itxaron beharko da" dio Etxarri Aranazko entrenatzaile Iosu Murgiondo Mundiñanok.

Bestalde, Lehen Maila Autonomikoari eusteko borrokan jarraitzen du Lagun Arteak. Liga despiditzeko hiru jardunaldiren faltan, sailkapenean hamargarren dira (40 puntu), salbazio postuetatik bost puntura. Igandean laugarren den Lourdes hartuko dute Zelai Berrin, 17:00etan.



Igandean Altsasuko kaleak korrikalariz betetzea da asmoa.

I. Alzheimer Herri Lasterketa prestatzeko azken egunak

ATLETISMOA Igandean 11:00etan oinezko martxa abiatuko da eta 12:00etan lasterketa, klinikatik

Igandean jokatu da Josefina Arregi Klinikako I. Alzheimer Herri Lasterketa, klinika kudeatzen duen Felipe Lezea Fundazioak Dantzaleku Sakana atletismo klubaren, Altsasuko Udalaren eta zenbait babesleren laguntzarekin antolatutakoa. *Zure oroitzenak zeharkatzen* leloa duen lasterketan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak.

Lasterketak hiru modalitate izango ditu: oinezko martxa (8 km), lasterketa (9,5 km) eta O Km dortsala, kirol ekimenean parte hartu nahi ez, baina euren alea jarri nahi dutenendako. Izena

ematea zabalik dago Josefina Arregi Klinikako webgunean, ostirala eguerdira arte, edo probaren egunean bertan, igandean, Josefina Arregi Klinikatik. Prezioa 10 eurokoa da eta izena ematen dutenek kamiseta jasoko dute opari.

Igandean 11:00etan oinezko martxa (8 km) abiatuko da Josefina Arregi Klinikatik, Sakana Trikitixa Eskolaren trikiti doinuak lagun. Ordu bat beranduago, 12:00etan, herri lasterketari hasiera emanen zaio (9,5 km). Proba ez lehiakorra denez, ez da sailkapenik egingo.

30 urteren ondorengo poza

FUTBOLA Altsasu futbol taldeak larunbatean Dantzalekun jokatuako partida ahaztezinean lortu zuen Erregional mailatik Preferente mailara igotzea. Jokalarien, teknikarien, Altsasu Kirol Elkartearen juntaren eta zaleen batasunak egin du posible

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Pasa dira larunbateko ospakizun handiaren ajeak. 30 urteren ondoren, Altsasu futbol taldea Preferente mailara igo da. Bukatu da gurutze-bidea. Poz-pozik dago Jesus Sayas presidentea buru duen Altsasu Kirol Elkartea, festaondoko bulego lanetan murgildua. Izan ere, datorren denboraldian gauza asko aldatuko baitira talde gorritxoan eta horrek bulego eta burokrazia handia dakar.

Duela 30 urte

Urte luze hauetan Altsasu futbol taldearen gorabeherak gertutik bizi ditu Peio Goikoetxea Barandiaran entrenatzaileak. Mailaz igotzeagatik "pozik baino, sekulako bakea sentitzen dut. Izan ere, igotze kontuarekin presio handia zegoen, aurten, agian, gehiago" aitortu du. Lanbidez masajista, bere lanarengatik eta entrenatzaile titulua izateagatik, kirol munduari oso lotuta egon da. Futbol jokalaria izan zen Altsasu eta Urdiaingo Aitziber taldeetan, urte luzez, eta entrenatzaile ondoren. "Duela 30 urte Altsasu entrenatzen nuen, Preferente mailan. Aurretik Hirugarren mailan ere jokatu izan zuen Altsasuk. Gogoan dut Hirugarrenera igo ginenean, ni eta Fernando Barrenetxea entrenatzaile ginela. Esan bezala, duela 30 urte Altsasu Preferente mailan utzi nuen, eta futbol entrenatzaile izateari utzi nion. Hurrengo denboraldian jaitzi zen Altsasu Erregional mailara" kontatu du Goikoetxea.

Orduan hasi zen Altsasuren kalbarioa. Hasierako urte haietan Peio Goikoetxea pilotaren eta txirrindularitzaren munduan aritu zen entrenatzaile, "oso gustura", masajista lanarekin uz-

tartuz. Urte batzuk pasa eta gero, Lakuntzako Lagun Artearendako masajista hasi zen, eta hor lotu zen berriz futbolera. "Bate-tik, Urdiainen kimuen futbol talde bat sortu nahi zuten eta ni hasi nintzen entrenatzaile; aldi berean, entrenatzaile titulua nuen, Preferente mailan zegoen Lagun Artearen entrenatzaile proposatu zidaten. Garai haietan ez ziren Lehen Maila Autonomikoa ezta Bigarren B maila existitzen, eta orduko Preferenteak beste maila bat zuen, egungoa baino askoz ere handiagoa. Baiezkoa eman eta Lagun Artearen entrenatzaile hasi nintzen, gustura. Taldea Hirugarren mailara igotzea lortu genuen. Sekulakoa izan zen" gogoan du. Hirugarren mailan ez zuen Lagun Artearen entrenatu, oso lanpetuta zegoelako, eta handik tarte batera etxera itzuli eta Altsasu Kirol Elkartean hasi zen berriz.

Altsasura buelta

Bigarren ibilbide honetan Altsasun zenbat urte daramatzen ez daki zehazki. "Jubeniletako taldeak entrenatzen urte dezente eman ditut" dio. Hain zuzen ere, joan zen denboraldian Goikoetxeak zuzentzen zuen Altsasu juvenilen taldea Maila Nazionalera igo zen, "eta lorpen historiko horrekin batera, paradoxikoki, Altsasuk erregional mailan jarraitzen zuen" dio. Altsasu Kirol Elkartea duen harrobia eta egitura kontuan hartuta, oso arraroa dela ezin daiteke ukatu.

"IGOERA BAT DAGOENEAN TALDEAN SEKULAKO GIROA DAGO. HORI, BETI" PEIO GOIKOETXEA

Erregionala ez da bere tokia. "Urte luze hauetan erregionalean egotea estigma bat bezala izan da. Zergatik jarraitzen zuen Altsasuk Erregionalean? Esango nuke faktore askok bat egiten zutela. Batzuetan ez zelako asmatzen kanpotik taldea entrenatza etortzen zen jendearekin, motibazio falta, harreman falta... Bestalde, klubeko talde nagusia erregional mailan egotea agian erreferente eskasa da gazte batendako, eta gure harrobian trebatutako jokalaria maila altuagoko beste taldeetara joan izan dira, Lehen Maila Autonomikoa dagoen Lagun Artearen edo Preferente mailan dagoen Etxarri Aranatzera, esaterako. Momentu honetan nire eskuetatik pasatu diren launa jokalaria daude talde bakoitzean, eta hori ere ulergarria da" gaineratu du Goikoetxea.

Egoera pertsonalak bulkatuta, aurtengo denboraldian juvenilen taldea entrenatzeari utzi zion Goikoetxeak, "pena handiz". Altsasu erregionala Carlos Cedeño entrenatzaile iruindarrarekin hasi zen lanean, eta taldeak ongi ekin zion denboraldiari. Abenduan Cedeñok entrenatzaile izateari utzi zion, "eta etxekoa nintzen, entrenatzaile titulua-rekin, eta nire egoera pertsonalak hobera egin zuenez taldearen ardura hartu nuen, Alberto Barricarterekin batera. Jokalari guztiak ezagutzen nituen, eta alde horretatik abantaila nuen" azaldu du Goikoetxea. Aldi berean, kimuen mailako talde bat entrenatzen du.

Kimika berreskuratu

Aurten sentsazio berezia zegoen liga hasieratik. Urte berezia izango zela zirudien. Aurten bai, igoera posiblea zela. "Bai, ezta?"

Nik ere hala uste dut. Horretarako gakoa izan da energia berri hau sortzeko taldeko jokalarien, teknikarien, Altsasu Kirol Elkarteko juntaren eta zaleen arteko kimika berreskuratu dugula. Guztiek bat egin dugu. Teknikariok gure lana egin dugu: jokalariai tratatu behar diren bezala tratatu, eta Altsasu Kirol Elkarteko futbol koordinatzaile Imanol Loborekin batera ideia eta molde berriak martxan jarri ditugu. Nik uste dut lan horrek fruitua izan duela. Eta jokalariek txalotzeko moduko denboraldia egin dute. Altsasu futbol taldeak ilusioa piztu du, eta futbolzaleek bikain erantzun dute. Nik ez dut larunbatean Dantzalekun egon zen giroa sekula ikusi. Bere garaian Altsasu Hirugarren mailara igo zenean ez zen giro hori egon" nabarmendu du.

Altsasu Kirol Elkartek ongi asmatu du jubel mailako bi taldeak, tartean Maila Nazionalakoa, indartsu mantentzen, jokalariai horiek erregionaleko taldera igo gabe, eta aldi berean erregional mailako taldea sendotzen. "Jokalariai gazteekin batera zenbait beterano aritu dira, inplikazio handiz. Jokalariai bat izan ezik, lesionatuta dagoelako, beste 24 jokalariai jokatzeko moduan egon dira azken egunera arte. Eta hori ez da batere normala, beti baja asko egoten direlako. Niretako gogorrena 24 horietatik azken partida polit eta erabakigarriak 18 jokalariai aukeratzea izan da, zinez, baina ez dago besterik, eta aukeratu beharra zegoen. Ildo honetan, nabarmendu behar da jokalariai guztien jarrera, denboraldi osoan, ikaragarria izan dela, txalotzekoa, eta hain zuzen ere, horregatik etorri da etorri den emaitza" azpimarratu du.

Bidea disfrutatu

Denboraldian presioari eustea zaila izan da. Gainera, Erregional mailatik Preferentera igotzeko sistema "injustua" dela deritzo Goikoetxeak. "Ligan sekulako denboraldia egin dezakezu, aurtun Iruntzikiri gertatu zaiona, liga alde handiz irabazi baitu, baina igoera fasean partida bat huts eginen duzu eta ez zara igotzen. Preferentetik Lehen Maila Autonomikora eta Autonomikotik Hirugarren mailara igotzeko, aldiz, ez da igoera faserik jokatzen" azaldu du. Liga bigarren despeditu zuen Altsasuk, Leitz-



Altsasun ordu txikiak arte ospatu zen Altsasu mailaz igo izana. NAGORE DIAZ

ko Aurrera taldearen atzetik, eta igoera fasean bi kanporaketa jokatu behar izan zituen: lehena Urroztarraren kontra, eta hura gaingaituta, Beti Onaken kontra. Joaneko partida bana berdinduta, larunbatean Altsasun jokatutako partidak erabaki zuen igoera fasea "eta denboraldi guztia". "Kartelak ikustea bezalakorik ez dago: "final handia", "soilik irabazteak balio du"... Eta galduko bagenu, porrota litzateke? Hori ere ez da justua. Horregatik nik denboraldi hasieratik futbolariari esaten nien bidea disfrutatzeke. Disfrutatzen bagenuen emaitzak etorriko zirela. Eta hala izan da" argi du.

Emozioak kudeatu

Larunbateko finala "oso berezia" izan zen. "Halako partidetarako jokalarien motibazioa ia altuegia da, eta emozioak ongi kudeatu, hori da egin beharrekoa. Nire kasuan, zerrendako 18ak aukeratzeak eman zidan burukominik handiena, kanpoan geratu zirenak ere partidan egotea merezi zutelako" dio. Altsasu hasieratik aurreratu zen, eta horrek lasaitasuna sortu zuen. "4 eta 1 irabazi genuelako askok esan zidaten erraz irabazi genuela, baina ez da horrela: ederki estutu gintuzten. Gu beraiek baino askoz ere gehiago izan ginen Atarrabian, eta bana berdindu genuen.

**"ZULOTIK ATERA
IZANA ASTE HONETAN
ARI NAIZ
BARNERATZEN"
PEIO GOIKOETXEA**



Jokalariek Peio Goikoetxea haizatu zutenekoa. NAGORE DIAZ

Gainera, guk ezin genuen huts egin; eurek ez zuten presio hori. Hirugarren mailan beste talde bat dute eta euren dako polita litzateke irabaztea, baina ez zen ezinbestekoa, guretako bezala, eta hori asko nabaritzen da". Asier Salgado eta Imanol Lobok sartutako bina golei esker, partida irabazi eta eromena piztu zen Dantzalekun.

"Jokalariek sekulako poz ez-tandarekin bizi izan zuten garai-pena, baina ni, une horietan, irla bat naiz (kar, kar...). Ni aulkian oso adierazkorra naiz, esplosiboa, baina halako une erabakigarri horietan, poz une hori lehertzen denean, ni bakean geratzen naiz, plof. Berdin gertatu zitzaidan Altsasurekin eta Lagun Artearekin Hirugarren mailara igo ginenean. Aldiz, azkeneko hila-beteen egunero eta egun guztian arraso emozionatuta egin naiz.

Irabaziz gero, garaipena nola biziko zen imajinatzen nuen, erantzuna nolakoa izango litzatekeen. 30 urteko bidaia luze eta triste hau oso ongi ezagutzen nuen, guztiz hunkitzen nintzen. Baina larunbatean pozak ez-tanda egin zuenean ni aparte geratu nintzen, aurrekoetan bezala" aitortu du.

Denboraldian gertakizun askok bat egin dutela gaineratu du, "barnean" gorde dituenak. "Duela 30 urte Vergara eta Urkijo ziren Altsasuko orduko Preferenteko atezainak, nik entrenatzen nituen, eta aurtun euren semeak dira atezainak. Eta oso gogoan izan dut Mitxel Agirre ere. Duela 30 urte Altsasun jokatzen zuen, eta Urrotzen sekulako kolpea hartu zuen. Hain zuzen ere aurtun Urrozko partida jokatu baino pixka bat lehenago utzi gintuen. Bere semea entrenatzen dut kimuetan. Kointzidentzia bereziak izan dira" dio.

Futbolariak goraipatzen ditu. "Futbolariak dira protagonistak, eurek dute meritu guztia. Euren jarrera bikaina izan da. Zortea izan dut beti egon naizen aldagelatan, baina talde honetan sortu den harremana ikusgarria izan da. Igoera bat dagoenean horrek esan nahi du aldagelan sekulako giroa dagoela. Hori beti. Baina aurtengoa apartekoa izan da, berezia" argi du. Pasadizo pare bat kontatu ditu. "Iturmen-din bizi den argentinarrak batek jokatzen du gurekin, Juan Bautista Garciak. River Plate taldearen zale amorratua denez, Riverren kamiseta bat erosi nuen eta larunbatean aldaketa egiteko prestatzen ari zela, kamiseta jantzi nuen. Bere aurpegia ikus-tekoa izan zen!" irribarre egiten du entrenatzaileak, partida bukaeran jokalariek bere eta Barricarteren irudiekin egindako kamiseta jantzi zutenean egin zuen bezala.

Datorrena

Goikoetxea aste honetan ari da barneratzen "zulotik atera izana". Datorren denboraldian jarraitzeko asmoa du. Altsasuk Preferentent jokatuko du, baina litekeena da Erregional mailako Altsasu talde berria ere ateratzea, "jubeliletatik 14 jokalariai igoko direlako eta aurretik genituen 25 jokalariai eta fitxa egin gabe geratu zirenak kontuan hartuta, bi talde sortzeko jendea dagoelako". Lana ez zaie faltako.

Altsasu

2021/2022 Erregional taldea

- **Atezainak:** Ekai Urkijo, Ivan Gorris eta Angel Vergara.
- **Jokalariai:** Unai Alaba, Aitor Lopez de Goikoetxea, Kenneth Paulette Vergara, Juan Bautista Garcia, Jonathan Medina, Mikel Arellano, Jon Mendia, Eneko Vera, Imanol Lobo, Javier Guisado, Julien Barreiro, Jon Insausti, Jon Lanz, Aitor Lara, Javier Morras, Asier Amiana, Xabier Ayestaran, Asier Salgado, Aitor Flores, Joseba Montoya, Gorka Martinez, Unai Santano eta Javier Diaz.
- **Entrenatzaileak:** Peio Goikoetxea Barandiaran eta Alberto Barricarte Calvo.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 20

ALTSASU Gazte agenda: Mahai jokoak.
18:00etatik, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Oholtzara Salto! Programaren Dantzabideak: Dantzaz konpainiaren Gesala ikuskizuna eta Altsasuko institutuko eta Andra Mari ikastolako ikasleen koreografiaren emanaldia.
18:00etan, lortia zabalgunean.

ARBIZU Asisko Urmenetak Amaiurko baitailaren 500. urteurrenean argitaratu duen komikiaren hitzaldi ilustratua.
18:30ean, udaletxean.

ALTSASU Zisheteroaraua apurtzera goaz! Militantzia eta disidentzia sexualak Ilunabarrean esan-en proiektzioa eta solasaldia.
Errafailak-ek eta Ernaik antolatuta.
18:30ean, lortia kultur gunean.

ARRUAZU Bolante baten historia film dokumentalaren emanaldia.
19:00etan, herriko etxean.

IRURTZUN Mendi Jarduerak: Mendiak 1976 film dokumentalaren emanaldia eta Luis Arrieta zuzendariarekin solasaldia.
20:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Deserrite eta Sofokaos taldeen kontzertua.
23:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 21

ETXARRI ARANATZ Ezagutu beheko basoko ondarea txangoa. Ezpileta elkarteak eta Karrikestu mendi taldeak antolatuta.
09:30ean, kanpineko goiko aparkalekutik.

ALTSASU Pablo Sarasate kontserbatorioko akordeoi eta txirula taldea eta Altsasuko Musika eta Dantza eskolako

ikasleen emanaldia.
Kalejira, 11:45ean; kontzertua, 12:30ean, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Elai Alai eguna: kalejira erraldoiekin.
12:00etan, plazatik.

LAKUNTZA Lakuntzara bizitzera joandako herritarrei udalaren Erakunde Harrera. Sakanako Mankomunitateko anitzartean eta euskara zerbitzuekin eta Txingudiye elkartearekin.
12:00etan, udaletxean.

OLATZAGUTIA Remember time DJ jaialdia. Boni, Anabea, Morti, Kulimery, Alex Cue, Alfon eta Txen disko jartzaileak.
12:00etan, Clinker tabernan.

ALTSASU Udal azpiegiturak sozializatu! Lehenengo asanblada irekia.
AGAk eta GKSek antolatuta.
12:00etan, Foru plazan.

LAKUNTZA Elai Alai eguna: Apar festa.
16:30ean, plazan.

LAKUNTZA VI. Tortila txapelketa. Osagaien banaketa, 17:00etan; aurkezpena eta sari banaketa, 18:30ean, plazan.

OLATZAGUTIA Sutegiko denboraldi bukaerako festa.
17:00etan, Erburua kiroldegian.

BAKAIKU Plan estrategikoaren jarraipen bilera.
18:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda: Play arratsaldea.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Elai Alai eguna: Dantza emanaldia. Ondoren, buruhandiak.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleen dantza eta musika emanaldia.
19:30ean, lortia zabalgunean.

LAKUNTZA Elai Alai eguna:

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Alcarrás gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 20: 19:00
Igandea 22: 19:30

La maniobra de la tortuga gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 26: 19:30

Zezensuzkoa.
21:30ean, plazan.

IGANDEA 22

LAKUNTZA Bertako produktuen azoka eta ganadu erakusketa.
10:00etatik 15:30era, plazan.

ALTSASU Nafarroa berriz altxa!-ren Amaiuraldiaren Urdiaingo eta Altsasuko aurkezpena joateko bizi martxa.
11:00etan, Foru plazan.

URDIAIN Nafarroa berriz altxa!-ren Amaiuraldiaren Urdiaingo eta Altsasuko aurkezpena Gaizka Arangurerekin.
12:00etan, igerilekuetan.

ETXARRI ARANATZ Rock kontzertua: Haitza.
19:30ean, plazan.

IRURTZUN Mendi Jarduerak: Oman. Persiako golkoan eskalatzeari buruzko Joseba Arlegiren hitzaldia.
20:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 23

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN LAB sindikatuaren irakaskuntza arloko batzarra.
19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 26

IRURTZUN Iratxo elkarteko binakako Botxa txapelketa.
19:00etan, elkartean.



IRURTZUN Aitziber Iragiren Nomadak erakusketa. Maiatzean zehar, Pikuxar tabernan.



ARTXIBOA

ALTSASU Itziar Nazabal Sormen Tailerreko ikasleen lanen erakusketa.
Maiatzaren 17tik 28ra. Astelehenetik ostiralera, 18:00etik 20:00etara, larunbatean ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandean 18:30etik 19:30era.



ESKELA



Pedro Igoa Satrustegi

Gero arte aittala, azkenien atsedena hartu duzu.
Familtzenien sortu eta Amezteiko etxen hil.
Ez tezu bizi erreza izen.
Lan asko itte tokatu dakizu, etxen, basuen, Inasan...
Nerbio biziye izan duzu.
Egurretan inor ausarten ez en tokietatik zu faten zinen.
Hanka moztuta ere traktorea mendien hartu zenuen.

Sozidedien gustora asko ibilia zara.
Etxen, gu denokin, mahaiaren bueltan eta pilota partiduek ikusten debei.
Gaixotasunek pixkanaka hartu zeittu.
Lehenago bizkorra zinen bezela, izan zara gero paziente ona.
Azken momentu arte izan ditugu begi biziak eta irribarre goxoa gu guztiondako.
Guai atsedean artu eta amala Martinan onduen, gu kasin.



Etxekuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2022ko San Adrian festetan alokatu nahi da: garagarriaren (ekainaren) 17, 18, 19 eta 20an. Gutxienez 600 euro izanen da. Alokatu nahi duen edonor maiatzaren 22an goizeko 12:00etan bertan ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago enkantea eginen da.

Irurtzungo Udalak igerilekuetako taberna alokatu nahi du udarako: Baldintzak udalarekin eska daitezke. Igerilekuko taberna eskuratu nahi duenak ekainaren 3rako aurkeztu beharko du eskaintza udalarekin bertan.

LAN ESKAERA

48 urteko emakumea, adineko jendea zaintzeko edo ostalaritza garbiketan lan egiteko prest: Telefono zenbakia 653998035.

LAN ESKAINTZA

Lakuntzako Udalak soroak, garbitzaileak eta atezainak kontratatu nahi ditu igerilekuko denboraldirako: Aipatu lanpostuetan interesa dutenak Altsasuko enplegu bulegoan izena eman beharko dute maiatzaren 25a baino lehen. Nafar Lansare, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu kontratazioak.

Bakaikuko Udalak udako aisialdi eskaintzarako begiraleak kontratatu nahi ditu: Lanpostuan interesa duenak curriculum bidali udala@bakai-

ku.eus helbidera, ekainaren 3a baino lehen.

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

SALGAI

Erabili gabe dauden bi PVC lehiu salgai: Kristal hirukoitzak dute eta 82ko profila. Neurriak 61x156 eta 61x151. Prezio negoziagarria. Deitu 628 506 283.

IKASTAROA

Emakumeendako auto-defentsa ikastaroak: Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola identifikatu erasoak? Bi saio izango dituzte, honako herrietan: Etxarri Aranatzaren maiatzaren 27an, 17:00etatik - 21:00etara, eta maiatzaren 28an, 10:00etatik - 14:00etara Kultur Etxean (izena emateko epea maiatzaren 24ean) eta Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure etxea-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaitzen da). Izena emateak berdintasuna@sakana-mank.eus edo berdintasuna@altsasu.net emailletara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 telefonotara deitu.

OHARRAK

Bakaikun Euskaraz aisialdian izen ematea: 3

eta 12 urte arteko haurrei zuzendua, astegunetan 10:00etatik 13:00etara, ekainaren 27tik gailaren 21era burutuko da. Izena emateko udalarekin deitu (948 562 509) edo mezua bidali 622 268 161 tfnora ekainaren 3a baino lehen.

Olaztiko Udan Euskaraz kanpainan izen emateko aparteko deialdia: Maiatzaren 16tik 30era egin daiteke Udalarekin, 10:00etatik 14:00etara edo olazti@olazti.com posta elektronikora idatziz. Honako adin tarte hauetan daude plaza libre mugatuak: LH 1.mailan 3 plaza, LH 2.mailan 7 plaza, LH 3.mailan 2 plaza, LH 4.mailan 2 plaza, LH 5.mailan 11 plaza eta LH 6.mailan 5 plaza. Informazio gehiago eta baldintzak Olaztiko udalarekin edo www.olazti.com web orrian.

Altsasun Udako Aisiz Blai jardueran izen emateko epea zabalik: Maiatzaren 19tik 25era egin daiteke 948 012 012 tfnora deituz edo www.altsasu.net web orrian. Ludoteka eskaintza ekainaren 23tik uztailaren 1era 2010-2019 urte bitartekoendako, 8:30 - 13:30 orduetara (edo aukeran 11:00-13:30). Uztailaren 4tik 29ra (bi hamabostalditan banatuta) 4 urtekoak Ludotekan, 9:45tik 13:15era eta 5 - 12 urte bitartekoak Zelandin 9:30tik 13:00etara. Abuztuaren 1etik 30era (bi hamabostalditan banatuta) 2010 - 2018 urte bitartekoentzat Ludoteka 10:00etatik 13:00etara.

Informazio gehiago Udalarekin edo ludotekan.

Altsasuko Kirol Eskoletan izen emateko epea zabalik: Maiatzaren 19tik ekainaren 8ra arte 948 012 012 tfnora deituz edo www.altsasu.net web orriaren bidez. Eskaintza Udalarekin banatutako eskuorrian eta webgunean daude ikusgai. Plaza mugatuak direnez Altsasun eroldatutakoek lehentasuna iznago dute, bigarren irizpidea inskripzioaren hurrenkeraren arabera. Urriaren 1etik maiatzaren 31 arte irauten dute ikastaroek, ordainketa irailaren egiten da. Informazioa, erreklamazioak eta zerrendak Gure Etxean edo Udalaren web orrian.

Altsasuko Gazteriako Zerbitzua - Intxostiapuntaren udako ordutegia: Ekainaren 6tik irailaren 23ra arte, astelehenetik ostiralera 18:00 - 20:00.

Udako Gazte Agendako jardueretan izen emateko epea zabalik: Udagazte (12-16 urte bitartekoentzat, uztailaren 11tik 22ra, 10:00-13:00 orduetara, prezioa barematuta), Ur festa goxoa (12 urtetik gorakoentzat, uztailaren 12an 21:00-00:00 doan), Hondartza ateraldia (12-30 urte bitartekoentzat uztailaren 27an, 10:30tik 19:30ra 3 euro ordaindu behar dira) eta Gu geu gazte (12 - 30 urtekoentzat, uztailaren 4tik 29ra, 17:00 - 20:00 orduetara, prezioa barematuta). Inskripzioak maiatzaren 19tik ekainaren 3ra arte www.altsasu.net

www.altsasu.net web orrian edo 948 012 012 tfnora deituz, zerrenda ekainaren 10ean aterako da eta ordainketa epea ekainaren 16tik 22ra 948 012 012 tfnora deituz.

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan izen emateko epea maiatzaren 25ean amaitzen da: eskolako idazkaritzan edo www.altsasu.net web orrian.

Bakaikun auzolan deialdia: Udalak Launtza dermian dagoen gaztainondo itxiturako belarra moztu nahi du. Auzolanak bost orduko iraupena izango du eta 18 eta 55 urte bitarteko bakaikuarak deituta dauden arren, joango diren aurretik jakinarazi behar da. Beraz, auzolanerako izena eman nahi duenak udalarekin pasa edo www.bakaiku.eus webgunean egin dezake ere.

Irurtzungo festetan etxajua pizteko hautagai proposamenak: Irurtzundarrekin pertsona edo taldea proposatu ahal diote kultur kontseiluari. Horretarako, www.irurtzun.eus webgunean dagoen proposamen orria bete eta hura kultur etxean utzi edo hara bidali beharko dute kultur etxeari irurtzun.eus e-posta helbidera, maiatzaren 30era arte. Hortik bi aukeraturiko dituzte Kultur Kontseiluak eta herri bozketatik egingo da garagar-tzaroaren 17tik 23ra, eta botoa udalarekin, www.irurtzun.eus edo Irurtzun aplikazioaren bidez.

Odol emateak Olaztin: Maiatzaren 24an, 17:00etatik 20:30ra, Cliniker jatebidean.

Pentsioen balioa handitzeko sinadura bilketa: Pentsioak KPI errealekin eguneratzea eskatzeko sinadurak bilduko dira ekainera arte, asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara Altsasuko lortia kultur gunearen parean.

Olaztiko egur loteak eskatzeko epea zabalik: izena udalarekin eman behar da, 10:00etatik 14:00etara ordutegian, maiatzaren 25era arte. Epaizaren prezioa 25 eurokoa da, horietatik 10 euro udalarekin ordaindu beharko dira izena ematean eta ez dira bueltatuko. Gainontzeko ohi bezala zozketa egunean ordainduko da, aldeaz aurretik jakinaraziko da noiz izango den zozketa eguna.

Tren publiko eta sozialaren aldeko ikerketa laguntzeko: Trenaren aldeko Alternatibak AHT bat egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak beregokitzea defendatzen du. Tren soziala alternatiba erreala bilakatzen ikerketa serioa egin nahi dute. Horretarako, crowdfunding kanpaina martxoan jarri dute. 12000 euro jaso nahi dituzte ekainaren 2rako. Ekarpenak egin nahi duenak <https://www.kukumiku.com/en/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba/> webgunera jo dezake, edozein kopuru ongi etorria izango da.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

JAIOTZAK

- **Tekber Hamadi Mohamed**, maiatzaren 4an Altsasun
- **Izaro Mazkarian Rubio**, maiatzaren 8an Altsasun
- **Nizar Haddadi Bourzik**, maiatzaren 12an Altsasun
- **Hidaya Laghrissi**, maiatzaren 13an Bakaikun

HERIOTZAK

- **Catalina Quintana Ondarra**, maiatzaren 12an Arbizu-Bakaikun
- **Juan Berastegi Urkia**, maiatzaren 13an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Juanpa Agirre Garziandia Haitza taldeko abestien grabaketan. UTZITAKOA

Pandemia garaian sortutako abestiak

Juanpa Agirre Gaziandia musikari etxarriarrak eta Xanet Arozena Muxikak 2020an hasitako rock proiektua da Haitza. Igandean, maiatzaren 22an, 19:30ean, kontzertua eskainiko dute Etxarri Aranazko plazan.

ETXARRI ARANATZ

"Taldearen izenak dioen bezala, gure eskaintza horixe da: Rock-a, bere azalean". Horrela dio Haitza taldeak bere aurkezpenean. Rock-a dago haien esentzian eta abestietan. Juanpa Agirre Garziandia etxarriarrak ahotsa jartzen du, Xabi Zubeldia Ugartemendiak teklatura jotzen du, Xanet Arozena Muxika eta Ander Arozena Zurutuza gitarrak joleak dira, baxua Aitor Arozena Muxikak jotzen du eta baterria Anitz Arozena Zurutuzak. Lagun talde bat da. Rock musika egiteko elkartu den kuadrilla bat.

Haitza pandemia garaian sortutako talde bat da. Behintzat, proiektuaren hastapenak 2020ko konfinamenduan eman zituzten. Itxialdi horretan zeudela Juanpa Agirre eta Xanet Arozena, "bakoitza bere etxean", kantak egiten hasi ziren. Ondoren, Agirrek azaldu bezala, "ahal izan zenean" talde kideak biltzen eta entseatzen hasi ziren, proiektuari forma emanez. "Kantu sorta bat grabatzera elkartutako lagun talde bat da" Haitza. Behin itxialdia atzean utzita

eta proiektuarekin aurrera egin zutela, 2021ean Oiarzungo Lezoti estudioa joan ziren pandemiaren garaian sortutako kanta horiek grabatzera.

Etxarri Aranatz

Abestien grabazioaren emaitzarekin "pozik", eta "taldeko giroaz gozatzen", pausu bat ematea erabaki zuten eta zuzeneko emaldiak ematen hasi ziren. Maiatzaren 22an, igandean, 19:30ean, kontzertua eskainiko dute Etxarri Aranazko plazan, udaleko kultur zerbitzuak udaberrian eta udan antolatzen duen Musika plazan zikloaren barruan.

Juanpa Agirre Garziandia musikari etxarriarra da Haitza taldeko ahotsa eta sortzailetako bat. Musikariak ibilbide luzea du musikaren munduan. Akelarre taldeko kidea izan zen, eta 4nek taldeko ahotsa izan zen, Joseba San Sebastian, Imanol Goikoetxea, Xabi Zubeldia eta Juanma Urriza Boli musikari sakandarrekin batera. Gainera, Iruña Kantuan jaialdian hainbatetan aritu da, baita Sakanako musikarien zenbait kontzertu eta musika ekimenetan ere.

Ane Labakak irabazi du bigarren Aixita bertso sariketa

Pikuxar euskal txokoak antolatutako bertso sariketa jokatu zen, larunbatean, elkarteko areto nagusian

IRURTZUN

Irurtzungo euskal txokoa eman-kizunerako bereziki apaindu eta argiztatu zuten Aixita bertso sariketari giro goxoa emanez. Larunbatean, maiatzaren 14an, sariketaren bigarren edizioa jokatu zen, eta sei bertsolarik parte hartu zuten: Aissa Intxausti, Maialen Akizu, Saats Karasatorre etxarriarra, Ane Labaka, Iker Altuna eta Aitor Irastortza. Gaijartzailea Zigor Gartzia Zian izan zen. 60 pertsona inguruk bertsoaldi "bikainak" entzuteko aukera izan zuten, eta giroaz "gozatu" zutela esan dute antolatzaileek. Bertso "hunkigarriak eta barregarriak" suertatu ziren.

Erronka polita zuten sei bertsolariek, eta, azkenean, buruz burukora Ane Labaka eta Maialen Akizu pasa ziren. Aurten Sakanak ordezkari ordezkari bat zuen sariketan, Saats Karasato-



Ane Labaka bertsolaria Aixita bertso

rre, eta denboraldi bat oholtzara igo gabe eman ondoren, bertsoaldi "oso onak" eman zituela esan dute antolakuntzatik. Azkenean, Labakak eraman zuen Aixitako txapela, eta "behartu gabe ere, gurekin gogoratzen direnentzat" eskaini zien txapela.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO LIBURUTEGI PUBLIKOA

Irakurketa proposamen hauekin gatzoz:

HELDUENDAKO: *Karena* (Alaine Agirre. Elkar, 2021)
Altsasuko Liburuaren Astean Alaine Agirre gurekin egon zen *Karena* liburua aurkezteko. Bere eskarmentutik abiatuta, baita beste emakumeen esperientzietatik ere, azaldu zigun nola sortu zitzaion liburu hau: ama izatearen nahia, haurdun geratu bikoterik gabe, intseminazioa, abortu bat erditu arte. Prozesua intentsitate handiarekin kontatuta, gehienetan oso gogorra, batzuetan samurra, minez blai. Sarak, protagonistak, aurre egiten dio minari, pixkanaka-pixkanaka itsasoaren poderioz... sendatzen joaten ari da. Liburu hunkigarria, ederra. Gai hauetaz guztiez ezagutarazteko balioa ere badu. Nobela honekin azken

Irun Hiria Kutxa Literatura saria jaso du Alaine.

GAZTEENDAKO ETA HELDUENDAKO: *Bizitzaren benetako funtsa* (Jean-François Sauré eta Jorge González de Matauco (Gidoilariak); Fernando Ferreiro eta Esteban Hernández (ilustratzaileak. Saure, 2021)

Liburu hau hiru komikiz osatuta dago: Kirolaren balioak, Matxinsalto-argitaratzailea eta Esaerak eta ikasbideak. Lan hauen arteko lotura zera da bizitzan benetan garrantzia duena jasotzen dutela. Jende asko baliatzen da bere ospeaz, bere botereaz, baina barru-barruan, ez dira zoriontsu. Bizitzan arrakasta lortzen ahalegintzen diren pertsonak ez dira besteekin alderatzen, euren buruarekin ondo sentitzeagatik egiten

dute, izan editore, kirolari profesional edo kale-garbitzaile.

HAURRENDAKO GAZTEENDAKO ETA HELDUENDAKO: *Lurreko paisaia galduak* (Aina Bestard. Txalaparta, 2021)
Album ilustratu bat ekartzen dizuegu, Aina Bestard ilustratzaileak eginda. Denboran zehar lur planeta nola sortu zen ezagutzeko bidaiarazten digu, bere marrazkiekin XIX. mendeko paleontologiako irudiztapenari omenaldi bat egiten. Haur koxkorak, gazteak, helduak eta baita familia artean gozatzeko eta ikasteko ere, informazio zehatz eta ilustrazio ederrez osatua dago. Lan honek azken liburuen Bolognako azokan aipamen berezia lortu zuen.



Gaizka Lanas, Haritz Goikoetxea eta Eukene Perez Haizkan taldeko kideak.

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

Urdiaingo euskalkian haizkan haizeak hartzera edo dena piktura bidaltzea esan nahi du. Duela urte bat inguru herriko musika talde baten izena da ere. Eukene Perez baterajoleak, Haritz Goikoetxea baxujoleak eta Gaizka Lanas gitarrajoleak eta abeslariak sortu dute, eta dagoeneko *Etsi* lehenengo EP-a kaleratu dute, baita izen bereko bideoklipa argitaratu dute ere. Kontzertuak ematen hasi dira ere.

Hiru urdiaindarrek musika ikasketak dituzte. Perezek hezkuntza musikala sei urtez ikasi zuen, eta behin formakuntza bukatuta bateria jotzen ikasten jarraitu zuen. Kuadrillako lagun batek bateria jotzen ikasten ari zen eta laguna ikustean berari ere zaletasuna sartu zitzaion. Lanasen kasuan trikitixa jotzen hasi zen, txikitlan lagun batek jotzen zuelako ere. Baina ondoren gitarrarekin hasi zen, irakasle batekin hasieran eta bere kontura ondoren. Goikoetxeak musika eskolako formakuntza osoa egin zuen eta gitarra ikasi zuen. Musika eskolako taldetan jotzeko baxujolea behar zuten, eta instrumentua ikasten hasi zen. Luisillo Kalandrakarekin klaseak eman ditu ere.

Duella lau edo hiru urte Lanasi buruan sartu zitzaion talde bat sortu nahi zuela, horregatik hain zuzen gitarra ikastea erabaki zuen, "ez nuen nire burua trikitixa jotzen ikusten". Pandemia hasi au-

Urdiaingo lokaletik

Urte batean taldea sortu, zuzenekoak eman, abestiak sortu eta EP bat kaleratu du Haizkan taldeak. Urdiaingo hiru gazteen proiektua da, Goikoetxea anaiak ez ezik herriko "lehenengo" musikariak. Abestiak sortzen disfrutatzen dute, eta "gogoa" dute.

rretik, Goikoetxeari taldea sortzeko nahia komentatu zion eta biak hasi ziren. "Nahiko zeblebre izan zen. Nik ez nekien gitarra oso ondo jotzen. Hasi-berria nintzen eta esan nion: Talde bat egingo dugu? Banekien berak ere talde bat sortzeko gogoa zuela". Hasiera batean baterajole bezala bere lehen-gusua sartu zen. "Egun batean jotzeko gelditu ginen, eta desastre bat izan zen". Alde batetik, Lanasek kontatu duenez, ez zitzaion biek zuten estiloa gustatzen, "beste estilo bat zuten", eta beste alde batetik ez

zegoen "oso motibatuta". Orduan, Perezi galdetu zioten.

Taldeak sortuz

Hiru musikariek egin zuten lehenengo entsegua "beste gauza bat izan zen". Greenday taldearen bi abesti prestatu zituzten, eta "ondo atera zen; horrela hasi ginen". Kanten bertsioak egiten hasi ziren, beraz, eta denborarekin abesti propioak sortu dituzte. "Egia esan, lehenengo abestia nahiko kaos izan zen. Ez genekien nola hasi". Goikoetxeak baxuarekin riff bat egin, Lanasek jarraitu zion eta Perezek bateria sartu zion. "Hasieran bertsioak gure moduan jotzen hasi ginen eta pixkanaka joan ginen beste gauza batzuk sortzen. Hasieran ez genekien ezta zer estilo egin nahi genuen", azaldu du Goikoetxeak. Zein musika egin

nahi zuten eta "zer garen" pixkanaka ikasten joan dira. Lanas: "Garrantzitsuena gogoa dugula da, eta nabaritzen da".

Eta zer da Haizkan? "Rock". Rockaren inguruan mugitzen den talde bat. "Grabatu genuen estudioan esan ziguten pop gogorra egiten dugula. Guk ez genuen pop bezala ikusten, baina nahiko pop da", azaldu du abeslariak.

Urte batean bederatzi abesti sortu dituzte, eta horietatik bost Berako Mik estudioan grabatu dituzte. "Taldea aurrera zihola ikusi genuenean, zortearekin Urdiainen bi musikari nahiko

AURREKO URTEKO KONTZERTUEKIN ALDERATUZ, "KONFIANTZA" IRABAZI DUTE

handiak ditugu: Goikoetxea anaiak. Pentsatu genuen aukera genuenez, galdetuko genielako. Hasiera batean ez genuen pentsatzen berak emango zigula eman zigun guztia". Imanol Goikoetxeak produktorearekin hitz egin zuen eta diskoan parte hartu du ere. "Asko lagundu digu". Joan zirenean "ilusioa" egin zion, Urdiaingo "lehenengo musikariak" zirelako.

Aurreko urteko udan modu inprobisatuan jo zuten lehenengo kontzertua. Goikoetxea: "Nahiko txapuza izan zen: bertsioak jo genituen, gure ekipoa zen...". Ondoren, Altsasuko Sukarrafest-en parte hartu zuten, "ondoren asuntua pixka bat txukuntzea pentsatu genuen eta abestiak egiten hasi ginen". Irtenbide bakarra horiek grabatzea zela pentsatu zuten. Maketa bat egiteko ideiarekin joan ziren, baina "grabatzen eta grabatzen" hasi ziren, eta azkenean Etsi EPa kaleratu dute. "Otsaileko bi asteburu Beran pasa genituen, egun guztia grabatzen". Amaiur Goikoetxeak ere parte hartu du diskoan. "Oso gogorra" izan zela gaineratu du Lanasek, baina emaitzarekin "pozik" daude.

Konfiantza

Haizkan taldearen abesti gehienak "kritikak" dira. "Bizitzan egokitu zaigunaren islada-edo: ezin dugu esan musika oso positiboa egiten dugunik, momentuz".

Aurreko urtean egin zituzten kontzertuak "kontaktu hartze" bat izan ziren, eta Lanasek aitortu duenez, "nahiko txarki pasa zuen", gehien bat jendearen aurrean hitz egiten. "Baina aurretik oso desberdina izan da. Segurtasuna oso desberdina izan zen". Aurreko asteburuan Urdiainen eta Altsasun eman zituzten kontzertuak, eta laster Lakuntzan egonen dira. Urte honetan gehiago entseatu dute, eta konfiantza irabazi dute.

Etsi abestia da haien lehenengo single-a eta horren bideoklipa egin dute. Unai Manerok ikus-entzunezkoekin lotutako ikasketak egin ditu, eta bideoa egiteko prest agertu zen. "Abestiak antsietateari hitz egiten dio". Kamararen aurrean jartzea "deserosoa" izan zela aitortu dute. "Eskerrak Saioa Iraizotz dantzaria agertzen dela eta espresibidade guztia ematen diola".

Momentuz, "jotzen eta abestiak sortzen" jarraitu nahi dute.

"Aurretik editorearen lana erromantizatzen nuen"

UXUE RAZKIN OLAZARAN EDITOREA

Duela urtebete Erein argitaletxean lanean hasi zen. Besteak beste, idazlea sortze prozesuan laguntzen du. Jon Arretxeren azken liburuaren aurkezpenean egon zen.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Apirilean urtebete egin zuen Arbizon sustraiak dituen Uxue Razkin Olazaran Erein argitaletxean editore lanetan hasi zela. Aurretik lan hori "asko erromantizatzen" zuen, egun osoa "irakurtzen sofa batean etzanda" zela uste zuelako; eta editoreek irakurtzen dute, asko, baina lan askoz gehiago ere egiten dituzte. "Irakurtzea egokitzen zait, baina ez nik irudikatzen nuen moduan". Bere bizitza, momentu honetan, bi liburu dorreren artean dago. **Nola iritsi zara editore izatera?**

Galdera hori egiten didatenean Kattalin Minerren *Nola heldu naiz ni honaino* liburuan pentsatzen dut. Bilbon kazetaritza ikasi nuen eta gero Bartzelonan Fnac-en liburu saltzaile egon nintzen. Egia esan, Ereinekin eta hemengo argitaletxeekin ez neukan harreman zuzenik, baina egun batean deitu ninduten eta elkarriketa bat egiteko esan zidaten. Nik momentu horretan Berrian zutabeak idazten nituen igandero, irrati kritikak, eta emakume zientifikoen errepor-tajeak idazten nituen *Mujeres con ciencia*-n eta Zientzia Kaieran. Kanal horien bitartez bazuten nire berri, eta deitu ninduten. **Erreferente bat zinen?**

Beraiek esan zidaten Berriako nire zutabeak irakurtzen zituztela eta alde horretatik ezaguna nintzen, bai. Baina aurretik ha-

rremanik ez nuen. Deitu ninduten, Iruñera etorri ziren eta elkarriketa egin zidaten. Oso barregarria izan zen oso modu zuzenean bota zidatelako eskaintza: "Editorea izan nahi duzu?". Nik esan nien ez nekiela zer egin behar zen. Gutxi gorabehera nire egitekoa zein izango zen esan zidaten, ez dagoelako oso argi ere. Editorea izatea gauza asko izatea da. Irakurtzearena buruan neukan, baina beste gauza asko ere kontuan hartu behar dira. Horien ardura ere baduzu. Azaldu zidaten, eta baietz esan nien. Normalean lanpostu hauek ez dira *infojobs* eta horrelako orrialdetan iragartzen. Hau zortea izatea da. Oso-oso eskertuta nengoen Bartzelonan egon nintzenean argitaletxean praktikak egiteko aukera jartzen dutelako, baina oso gutxitan ikusten dituzte curriculumak. Nireak, behintzat. Zorte handia izan nuen, eta oso eskertuta nago.

Sare sozialetan liburu dendan bi-zitako anekdotak kontatzen zenituen. Hori ere erakargarria egin zitzaizen? *Twitter*-ren bereziki bisibildade handia izan nuen. Anekdotak kontatzen nituen eta Berriako zutabeak iragartzeko nire izena aipatzen dute. Baina batez ere aldaketa ikusi nuen Fnac-en lanean nengoela etortzen ziren bezeroekin eta gertatzen zitzaizkidan gauza oso arraroen inguruko kronika txiki batzuk kontatzen hasi nintzen, betiere

umoretik, eta horri esker nahiko jarraitzaile izan nituen. Ereinekoek komentatu zidatenagatik, *Instagram*-en ere egiten nituen ez dut esango literatura kritikak, baina irakurtzen nituen liburuak igotzen nituen eta iruzkin txiki bat egiten nuen; ez zen asko, gustatu zitzaidana azpimarratu eta abar. Hori ikusi zutela esan zidaten. Sare sozialetako jarduerara hori ikusi omen zuten.

Zer da Erein?

Erein aspaldi sortu zen euskal argitaletxe bat da. Gaztelaniazko poesia izan ezik, guztia argitaratzen du. Adin tarte guztiak hartzen ditu bere gain, generoen aldetik ere nahiko ditu. Gehiena helduentzako nobela izaten da, baina badauka espektro handi bat haur eta gazte literaturan. Ikasteko argitaletxerik onena dela uste dut. Ia dena dauka. Nik gehienbat helduen literatura kontrolatzen dut; haur eta gazte literaturan pixka bat hankamotz gelditzen naiz. Liburu dendan asko ikasi nuen, baina orain egokitu zait haur eta gazteentzat produktu bat sortzea. Beraz, ikasteko abanikoa oso zabala da eta ondo egin dute ibilbidea. Hainbeste urtez hor egotea, presente, gainera gauza onak publikatzen.

Zer esan zizuten zela editorea izatea?

Haiek irakurtzearena komentatu zidaten, hori bai, eta gero ongi kudeatu behar zela idazleekiko

harremana. Hori azpimarratu zuten. Zein harremana sortzen den. Idazleak haien lana egiten ari dira, idazten, oso isolatuta, haien mundu horretan; txoko batean jartzen dira eta idazten hasten dira. Oso lan indibiduala da. Baina gero lan hori irekitzen da eta editorearen figura sartzen da. Laguntzen eta babesten saiatzen zara. Babes hori oso garrantzitsua da. Blokeatzen badira edo aste horretan oso triste badaude... Coach moduko bat izatea da. Garrantzitsuena da idazlearentzat hor egotea. Hori kudeatzea zaila da, bakoitza delako den modukoa, eta batzuetan konexio hori sentitzen duzu eta beste batzuetan ez. Baina hor egon behar duzu. **Eta zer da editore izatea? Zer gehiago ikasi duzu?**

Laguntzearena erreala da; errearena. Irakurtzearena ere bai. Ia egun osoa irakurtzen egoten naiz. Batzuetan atsedanak egiten ditut korreoa begiratzeko, hori ere kudeatu behar delako. Idazleei erantzunak ematea, beste merkatuetan zer dagoen ikustea eta abar. Horiek kontrolatu behar dituzu; kontrolatu baino jakinaren gainean egon behar duzu ikusteko zer argitaratzen ari den, erabakitzerako orduan hautatzen ari zarena kontuan izateko. Bulego lana. Bilerak asko ere egiten ditugu. Editore lanak leiho asko zabalik edukitzea eskatzen du. Hori ez dut esango gauzarik zailena denik, gauzarik zailena idazle bati ezetz esatea da, baina hori guztia kudeatzea zailenarikoa iruditzen zait. Aldi berean gauza asko dira, ez da gauza bat bukatzen duzula eta beste batekin hasten zarela. Eskuizkribu bat iristen da eta irakurtzen duzu, baina bitartean ari zara urteko aurreikuspena antolatzen, irakurtzen ari zaren liburu hura datorren urterako delako... Da-

"GAUZARIK ZAILENA IDAZLE BATI EZETZ ESATEA DA; BAITA DENA KUDEATZEA ERE"

"IRAKURRI EZ EZIK, IDAZLEA LAGUNTZEN SAIATZEN GARA; BABES HORI OSO GARRANTZITSUA DA"

tena oso garrantzitsua da. Oso ongi zehaztea noiz publikatuko den. Gerta liteke gero bukatuta ez egotea eta beste gauza bat izango duzu ateratzeko. Agenda asko mugitzen da, kazetaritza bezala. Horretarako ere produkzio bilerak, edizio bilerak eta abar egiten dira. Niri hori irudikatzea eta antolatzea kostatzen zait gauza gehiegi ditudanean buruan ez dudalako ongi pentsatzen. Alde batetik, irakurtzea eta analisisa egitea. Idazle horri balorazio bat ematea. Beste alde batetik zuzentzen eta beste eskuizkribuetan sartu... Oso zaila da. Batzuetan idazleak deitzen zaitu esanez oso blokeatuta dagoela, ezin duela gehiago idatzi, eta lagundu behar diozu.

Harreman horretan sortzen laguntzen duzu?

Gehiegi ezin naiz sartu. Obra idazlearena da. Baina blokeatuta badago edo ez badu amaierarekin asmatzen, telefonoz ez bada gelditzen gara eta brainstorming antzeko bat egiten dugu. Zer datorkio ondo istorio honi? Eta orduan erabakitzen doa. Sorkuntza aldetik laguntza badago, baina oso murrizta eta kontrolatuta izan behar du.

Beraz, esan zizutenak eta egiten ari zarenak antzekotasunik badu?

Bai. Hasieratik esan zidaten gogorra izango zela, erantzukizun handia eskatzen zuela, eta aldi berean polita ere badela. Bidea polita izaten ari da, urte honetan ikusi dut.

Nola iristen dira idazle berrien lanak argitaletxera?

Liburu baten prozesua oso luzea da. Iristen direnetik publikatzen den arte... Ereinek badu eposta bat, *erein@erein.eus*, eta gehienetan email horretara iristen dira eskuizkribuak. Lankide batek lehenengo filtroa pasatzen du, eta gehienbat momentu horretan behar gehien duten bildumak hartzen ditu kontuan. Ondoren, jasotzen ditut eta nahiko analogikoa naizenez, ia-ia beti inprimatzen ditut. Ez osorik, baina lehenengo 30 edo 40 orrialdetik; eta irakurtzen hasten naiz. Aldi berean eskuizkribu asko irakurtzen ditut, eta batzuetan nahasten zaizkit pixka bat. Bukatzean balorazio bat ematen dut eta argudiatzen saiatzen naiz. Batzuetan ezin diet guztiei kritika literario bat egin eta ezezkoa bada ildo nagusia aipatzen dut, besterik gabe. Baietz edo ezetz erabakitzen dut, eta edizio bile-



Uxue Razkin Olazaran Ereingo editorea. UTZITAKOA

ra batean hausnartzen da. Aurrrera badoa idazleari erantzuna ematen diot eta baiezkkoa bada eman behar ditugun hurrengo pausuak azaltzen dizkiot. Batzuetan aldaketak egin behar dituzte; indartzeko aholkuak. Idazle guztiei lanketa hori eskatzen diet. Idaztea berridaztea da. Ez dut esan nahi gaizki dagoenik, baina hobeto egon daiteke. Behin aldaketak eginak hobeto gelditzen den ikusi, eta baietz esaten badiet beste departamentura iristen da. Zuzenketak egiten dira, eta ondoren diseinuko departamentuak maketatzen du. Modu berean portada pentsatu behar da. Normalean nahiko irekiak gara horretarako. Portada, maketa, inprentara bidali, eta liburu eginda heltzen zaigu.

Prozesuak zenbat iraun dezake?

Liburu bakoitza mundu bat da. Argi ikusi dut bakoitzak bere bidea duela. Orain publikatzen ari diren eta helduko zaizkigun liburuekin urtebete egon naiz. Maketa eta portada erabakitzeke behar diren bi hilabete kenduta.

Testu hori lantzen sei hilabete egon naiz, erraz. Lantzen esan nahi dut berari zer aldatu esan, berarekin elkarriketak izan, niri bidali, beste batzuk proposatu... Pila bat luzatu daiteke. Beti dago zerbait egiteko testu horrekin. Baina momentu batean honaino esaten duzu, bestela ez nuke bukatuko.

Idazlearekin elkarlan handia duzue, ez da oso ezaguna editorearen lan hori. Liburuetan zuen zerbait badago?

Idazle bakoitzak badu bere erritmoa, bere lan egiteko modua, bere denborak, eta egokitu behar zara. Jon Arretxek dena egina bidaltzea nahiago du, eta orduan bai aldaketak edo zuzenketak proposatu. Beste batzuek laginak bidaltzen dituzte eta lehenengo hogeit hamar orri horietan ongi joatea. Perfil asko dira. Liburu guztietan zerbait badago. Ez dut behar horrelako aztarna bat uztea, badakidalako zer lan egin duten eta horrek pila bat poztzen nau. Liburu bat publikatzen dugunean ni oso pozik jartzen naiz biltegian

lankideak kutxekin iristen direnean eta irekitzen ditugunean. Ilusio handia egiten dit. Liburu gorpuztuta ikustea. Askok poztzen naiz beraiengatik. Lanketa prozesu horretan aztarna bat badago, gutxiago edo gehiago eskua sartu dut. Baina batez ere poztzen nau idazleek oso pozik daudela esanez mezuak bidaltzen dizkidatenean.

Kontzentrazio ikaragarria behar du lanak?

Esfortzu mental handia eskatzen du. Irakurle moduan bi liburu izan ditzaket irakurtzeko, eta bat saiakera izan eta bestea nobela izan, ongi jarraitzen ditut bi liburuak. Baina kasu honetan irakurketa analitiko da eta horretarako kontzentrazio handia behar da. Batzuetan ongi dator kit nire etxean egotea. Batzuetan etxetik lan egiten dut, hemen bakarrik nago, eta aprobetxatzen dut irakurtzeko. Bulegoan bilera eta emailak erantzun daitezke, baina irakurketa analitiko hori nire bakardadean egitea nahiago dut. Paragrafo eta esal-

di guztiek badute bere garrantzia, eta ari zara horien gainean zerbait eraikitzen. Normalean ez dut musika jartzen, baina bestela soinu bandak dira; letrarik gabe.

Aisialdian irakurtzen jarraitzeko gogo gelditzen zaizu?

Bai, gogoia badaukat. Etxera iristen naizenean nire gustukoenak aukeratzen ditut, baina egia da geroz eta gehiago nabaritzen dudala begietan nekeza. Egune-ro asko irakurtzen dut. Orain Donostiara joateko autobusean audioliburu jartzen dut, horrela ez ditut begiak hainbeste nekaten eta bulegora fresko iristen naiz. Bestela... Bestela, arratsaldetan eta asteburutan irakurtzen jarraitzen dut. Baina astesantuan, adibidez, bukatu nuen oso larri liburu asko genituelako eta inprentara bidali behar genituelako, eta ez nuen ezer irakurri. Agatha Christieren hogeit hamar orri, eta Agatha Christie normalean deskonektatzeko irakurtzen dut. **Eta idazteko gogorik baduzu?**

Editore batek ez du idazle izan behar, baina sorkuntza aldetik ikasten duzu. Irakurketak idazterako garaian laguntzen dizu. Idazteko idatzi behar da, baina batez ere idazteko irakurri behar da. Nik txikitatik idatzi dut, baina terapia moduan. Gaztetatik bulling-a sufritu nuen, eta hori kanporatzeko eta kudeatzeko idatzi behar nuen. Nire kanporatzeko modua idaztea da. Beste batzuen kasuan musika izango da, baina niri idazteak ondo egiten dit beti. Idatzi dut, baina etxean. Irakurtzea gehiago gustatzen zait.

Paperaren garestitzea, liburu elektronikoak... Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oxala jakitea zer gertatuko den paperarekin. Krisi handia da. Inprentakoekin hitz egiten aritu

"SORKUNTZA ALDETIK LAGUNTZA BADAGO, BAINA OSO MURRITZA ETA KONTROLATUA IZAN BEHAR DU"

"IRAKURKETA ANALITIKOA DA ETA HORRETARAKO KONTZENTRAZIO HANDIA BEHAR DA"

ginen eta paperaren garestitzearekin arduratuta eta kezkatuta zeuden. Gu ere arduratuta gaude, liburuek oinarria papera dutelako, eta gure produktua liburu delako. Salneurriak agian igoko dira. Baina liburuek beti izan dute zerbait; bizirauteko oztopo edo erronka bat. Baina hortxe jarraitzen dute. Nik uste publikatzen jarraituko dugula. Agian produkzioa jaitsiko da, eta ez bakarrik paperagatik. Nik uste orokorrean gehiegi publikatzen ari dela. Irakurleak ez dira nobedade guztiak irakurtzera iristen. Alde horretatik produkzioa jaitsiko da, eta jaitsi beharko da irakurleei denbora emateko. Eskaintza ona eta zabala da. Oztopoak eta zalantzak beti egon dira. Liburu elektronikoak atera zirenean boom bat izan zen, eta gero apaldu da. Paperak gailentzen jarraituko du. Nik liburu elektronikoak erabiltzen dut, baina egoera oso konkretuetan; bidaia batera zoazela eta hiru liburu eraman beharrean, elektronikoa eramaten duzu, baita audioliburu ere badago. Baina beti egiten dut paperezkoaren hautua. Oso gauza erromantikoa da liburuekin duguna. Azkenean, artefakto hori gorde nahi dugu, ez dakit zergatik baina badu zerbait magikoa eta hor izan nahi dugu. Tangiblea izatea behar dugu.

Zer duzu eskuartean?

Momentu honetan badaukat datorren urterako zerbait: idazle bat nahiko handia ilusio izugarria ematen didana berarekin lan egiteak. Oraindik hastapenetan dago, baina uste dut datorren urteko boom bat izango dela helduen literaturan, nobela bat. Helduen literaturan idazle berriak agertzen ari dira eta niri horrek ilusio handia egiten dit. Gogotsu gaude, gainera. Twitter bidez ikusten dut hori ere. Ikusten ari da bide polita dutela aurretik. Baita emakumezkoak ere. Hasiatik nire filosofia izan da hori. Oraindik jasotzen ditudan artean emakume gutxi gaude, tamalez. Iristen zaizkidanak oso gutxi dira. Durangoko Azokan Zulora saioa egin genuen eta esan nuen emakumezkoen gutxi iristen direla, eta hurrengo egunean emakume batek bidali zuen esanez entzun ondoren bere lana bidaltzera ausartuko zela. Ateak irekitzea, eta aurrera eramatea; hori da nire ametsa.

"Matematika irakaslea izan nahi dut"

Laida Garziandia Pazos lakuntzarrak eta Etor Lizarraga Viguera leitzarrak, Nafarroako Matematika Olinpiadak irabazi eta gero, ekainaren 24tik 27ra jokatu dituzten Espainiako Olinpiadak prestatzen ari dira

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Noiztik duzu gustuko matematika?

Lakuntzako herri eskolan biderketak eta bestelako eragiketarik ikasten hasi ginenetik oso gustuko dut matematika. Altsasu Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutura iritsi nintzen berehala jabetu ziren horretaz, eta ordutik Matematika Olinpiadetarako prestatzen aritu naiz.

2 Ba al zenekien Tornamira Matematika Irakasleen Nafarroako Elkartek Nafarroako Matematika Olinpiadak antolatzen zituela?

Ez nekien, baina joan zen urtean Altsasu Institutuan hasi eta gutxira, nire matematika irakaslea hurbildu zitzaidan Matematika Olinpiadak zeudela eta ea parte hartu nahi nuen galdetzeraz. Eta ez nuen zalantzarik izan, berehala animatu nintzen. Matematika



Laida Garziandia Pazos Espainiako Matematika Olinpiadetarako prestatzen ari da.

gustuko dut eta nik handitan, ahal badut, matematika irakaslea izan nahi dut.

3 Nola prestatu zenituen Matematika Olinpiadak?

Irakasleak ariketa batzuk eman zizkidan, joan zen urteko Olinpiadetako ariketak, eta ariketa horiek eta bestelako batzuk egiten aritu naiz. Horrela ikasten da, ariketak eginez.

4 Olinpiadakoak klasean egiten dituzuenaren antzeko ariketak ziren ala zailtasun gehiago zuten?

Klasean lantzen dugunarekin ez zuten zerikusirik. Bestelako problemak ziren, zailagoak, baina ez ziren supergaitu edo talentu handiko pertsonendako. Hau da, gure adinekoak problema horiek egiteko gai gara.

5 DBH-ko bigarren mailako 164 ikasle nafarrek hartu zenuten parte, 56 ikastetxetakoak, 82 bikote guztira, Sarrigurenen, Salestarren institutuan. Nola osatu zituzten bikoteak?

Altsasu Institututik hiru ikasle joan ginen: Adei Mendinueta eta Eunat Liaño arbizuarrak eta hirurok. Euskarazko adarretik 30 bikote ginen, eta zozketa bidez bikotea banatu gintuzten. Niri Etor Lizarraga Viguera leitzarrarekin bikotea osatzea tokatu zitzaidan. Oso jatorra zen, eta biok gustura egon ginen lanean, oso ongi moldatu ginen.

6 Nolako problemak ziren?

Bi orduko azterketa zen, eta guztira sei problema ziren. Adibide bat jartzearen, bigarren problemaren distantzia bat zegoen, X, hau da, ez genekiena, eta abiadura jakin batean 12 minututan egiten zen distantzia hori. Distantzia bera abiadura hori gehi haren herenean eginez, zenbat denboran egiten zen kalkulatu behar genuen. Halako problemak ziren.

7 Bien artean ideiak adostu behar-ko zenituzten.

Bietako bati zerbait bururatzen bazitzaion, besteari esan eta bion artean adosten genuen. Oso ongi moldatu ginen. Problemetan zailena, problema ongi aztertzea eta datuak ongi jartzea da. Hau da, problema nola egin jakitea. Hori erabakita, problema egitea erraza da.

8 Ariketaren bat trabatu al zitzaizuen?

Bigarrena egitea kosta egin zitzaigun, hain zuzen lehen adibide gisa aipatu dudana, abiadurarena. Ez genekien datuak nola jarri, eta bukaerarako utzi genuen. Azkeneko ariketan kupula antzeko irudi batzuen azalera neurtu behar genuen, eta neurketak egiteko tresnak hartzeko tarteka itxaron behar genuen. Dena den, bi orduko epea nahikoa zen probak egin ahal izateko.

9 Irabaztea espero al zenuten?

Ez. Proba bukatutakoan amari esan nion proba ongi egin nuela, baina besterik gabe. Ordu batean azterketak zuzendu zituzten, eta bukaeran gure izena esan zutenean, txundituta geratu nintzen, ezin nuen sinetsi. Soilik lehendabiziko hiru sailkatuen izena-abizenak aipatu zituzten, baina azterketak ez zituzten erakutsi. Pentsatzekoa da proba guztiak ongi egingo genituela irabazi ahal izateko, baina ez dakigu. Dena den, oso pozik nago.

10 Zer jaso zenuten opari?

Parte hartzeagatik guztioi diploma, konpasa, giltzak jartzeko soka eta boligrafo batzuk eman zizkiguten, eta irabazteagatik kalkulagailu bat, erloju berezi bat, orduak eragiketekin ematen dituen, eta Espainiako Matematika Olinpiadetara joateko aukera. Ekainaren 24tik 27ra izanen dira, Cuencan edo Albaceten, oraindik ez dakigu. Dagoeneko Espainiako Txapelketa prestatzeko materiala eman didate, Espainia eta Ingalaterrako Olinpiadetan aurretik egindako ariketak, eta praktikatzeko hasi naiz. Ilusio handia dut, baina ardura ere bada. Nafarroatik soilik gu goaz Espainiakora, eta beraz... kezka hori. Uste dut Espainiako Olinpiadak zailagoak izango direla, baina saiatuko gara.

11 Etxekoek, lagunek, irakasleek... zer diote?

Guztiak oso pozik daude, inork ez zuelako espero. Horrenbeste jenderen artean Olinpiadak irabaztea... oso kontentu nago. Gurasoak irakasleak ditut, aita ingeles irakaslea eta ama irakaslea, eta datorren urtean, ikasgaiak aukeratzeko unean ez dut zalantzarik izango: zientziak aukeratu ditut.

